1919tik | 2.617 zenbakia | 2018/10/21 | 3,90 € | argia.eus

ARGIA

PESTIZIDA KIMIKOAK DEBEKATZEKO KANPAINA ABIAN

AMAZIGH HERRIAREN KOLOREAK ARGAZKITAN

HAURRESKOLETAKO HEZITZAILEAK BEREN LANAREN AITORTZAZ

LEGEALDIAREN AMAIERA

EUSKARAREN OFIZIALTASUNA LORTZEKO AZKEN AUKERA

Datorren astean

ARGIA

2.617 zenbakia | 2018/10/21

PANORAMA

4 Asteko argazkia
6-9 Aktualitatea
7 Gaizki erranka
7 Ez hanka ez buru
8 Ekonomiaren talaian
10 "Mitxoletak nahi ditugu", pestizida guztiak orain amaitzeko aldarria

IRITZIAK

17 Aiala Elorrieta Agirre
18 Bea Salaberri
19 Zigor Etxeburua Urbizu
Edu Zelaieta Anta
20 Gotzon Barandiaran Arteaga

AZALEKO ILUSTRAZIOA:
XABIER SAGASTA

39 DENBORAREN MAKINA
40 BIZI BARATZEA
42 ARGIAKO AZOKA
43 ARGIAKO KOMUNITATEA
47 ARTEA
48 KULTUR KRITIKA
50 ZUZENEKO EMANALDIA
51 DENBORA-PASAK
52 ARGI-KONTRA:
LUIS ANGEL GAINTZA
54 BERANDUEGI

Dani Blancoren argazki erreportajearen bidez amazigh herriaren haran ahaztuetan barrena bidaiatuko dugu.

SAKONEAN

12 | Nerea Arriola: "Umorearen izenean ez dira gauzak banalizatu behar" / Danele Sarriugarte Mochales
22 | Nafarroako Euskararen Legea: Aldaketarako denbora amaitzen ari da / Garazi Zabaleta
28 | Idoia Karrera eta Nerea Gomez haurreskoletako hezitzaileekin elkarrizketa / Mikel Garcia Idiakez
31 | Ruben Collio ekintzaile maputxearekin elkarrizketa / Amaia Lekunberri Ansola
35 | Amazigh herriaren koloreak / Dani Blanco
44 | Sad Nigiri: "Trap-a showrako aitzaki hutsa da" / Kepa Matxain

ALDIZKARI HAU IRAKURRI OSTEAN, EMAN NORBAITI EDO UTZI LEKU PUBLIKO BATEAN. BILDUMAGILEA EZ BAZARA, NOSKI.

ARGIA KOMUNIKAZIO PROIEKTUA ARGIA JENDEAREN BULTZADAREKIN ATERATZEN DUGU AURRERA. MILA ESKER DENOI.

OLATUKOOP
EKONOMIA SOZIAL ERALDATZAILEAREN SAREKO KIDE

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA

Gipuzkoako Foru Aldundia

Jabetza: Komunikazio Biziagoa, S.A.L. Ametzagaiña Taldeko partaidea.
Lehendakaria: Bego Zuza.
Zuzendaria: Estitxu Eizagirre.
Erredakzioa: Amaia Lekunberri, Axier Lopez, Estitxu Eizagirre, Gorka Bereziartua, Gorka Peñagarikano, Iñigo Igartua, Jon Torner, Lander Arbelaitz, Mikel Asurmendi, Mikel Garcia, Onintza Irureta, Pello Zubiria, Urko Apaolaza, Xabier Letona.
Diseinua: Sergio Labrador.
Argazkilaria: Dani Blanco.
Produkzioa eta inprimaketa: Antza S.A.L.
Administrazioa: Jone Arzallus, Mari Karmen Loiarte.
Salmenta: Idoia Arregi, Ixabel Bereziartua, Karlos Olasolo, Maite Arrieta, Olatz Korta.
Idazkaritza: Aloña Soraluze, Bego Zuza.

CC BY SA

DOAN ETA LIBRE

ARGIAKO EDUKIAK KOPIATU, MOLDATU, ZABALDU ETA ARGITARA DITZAKEZU, GURE EGILETZA AITORTU ETA BALDINTZA BERETAN EGINEZ GERO.

Web garapena: Asier Iturralde.
Informatika: iametza interaktiboa, S.L.
Lege gordailua: SS 837-2012.
ISSN: 0213-909X.
Batzorde parekidea: 72562 E.

HELBIDEAK:
Gipuzkoa: Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria. Tel.: 943 371545.
Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoa: Xalbardin baita. 64122 Urruña. Tel.: 559 473163.
Nafarroa: Gazteluko Plaza 44, 3. eskuina. 31001 Iruñea. Tel.: 948 222285.

POSTA ELEKTRONIKOAK:
Komertziala: komertzial@argia.eus
Harpidetzak: harpide@argia.eus
Erredakzioa: kazeta@argia.eus

PANORAMA

Akabatzearen negozioa argitara

Hiltegietako irudiak publiko egiteak kaltea eragiten dietela jakitun, animaliak hiltzea negozio bilakatu duten arduradunek hermetismo handia ezarri dute hiltegien inguruan. NOR talde antiespezistako kideek urte eta erdi eman dute Euskal Herriko eta inguruetako hiltegietako jarduna ikertzen, ezkutuan, eta ondorioak zabaldu dituzte: urtero munduan hiltzen dituzten 70 mila milioi animalietatik, 100 milioi inguru Euskal Herrian hiltzen dituzte, eta oro har, langileen baldintza prekarioetan. Gogoeta piztu nahi dute, gizakiok hausnar dezagun zer botere-harreman dugun beste espezieetako animaliekin. Eta egiari zor, bada zer pentsatua: hainbeste maite dugun xerra edo hanburgesa hori jan ahal izateko, aurretik guk geuk, geure eskuekin, animalia hil beharko bagenu… zer egingo genuke?

Argazkia: NOR taldea – Tras los Muros · Testua: Axier Lopez

“Urriak 12, ez dugu ezer ospatzeko. Burujabetza eta askatasuna gorputz eta herri guztientzat! Jai egun arrotzei intsumisioa!”

@ZuriHidalgo

“Amerika inbaditu eta okupatu zuten. Nire lurra okupatzen jarraitzen dute”

@auxpoa

“Urriak 12 dela eta, egun hauek berretsi dute zein sakona eta itxia den nazionalismo espainarra”

@KikeFdzdePinedo

Hispanitatearen eguna baliatu dute Espainiar inperialismoarekin lotutako kaleei izenak aldatzeko Donostian

Argia

Epaileek Hernaniko udala Hispanitate egunez itxita egotera behartu dute, langile batzordeak salatu duenez

Urumeako Kronika

2013an Ainhoa Intxaurrandieta, Carmelo Aguas (FCC) eta Iñaki Errazkin. LUIS JAUREGIALTZO / ARGAZKI PRESS

Erraustegia gelditzea ez zen delitua izan

Argia

Epaileek arrazoi eman diete Ainhoa Intxaurrandieta eta Iñaki Errazkini. Apirilean epaitu zituzten Madrilen, aurreko legegintzaldian Gipuzkoako erraustegia gelditzeagatik, gaur egungo GHK-k salaketa jarrita. 40 milioi eurotik gorako zigorraren itzala izan dute gainean.

Iñaki Errazkin Gipuzkoako Ingurumen diputatua zela eta Ainhoa Intxaurrandieta GHK kontsortzioko lehendakaria, 2013an Gipuzkoako erraustegia geldiarazi izanagatik epaitu zituen apirilaren 12an Madrilgo Kontu Auzitegiak. Gaur egungo GHKren batzarrak onartu zuen salaketa jartzea, eta bertako lehendakari eta Ingurumen diputatu den Jose Ignacio Asensiok egin zuen proposamena.

Ainhoa Intxaurrandietak otsaileko LARRUN hilabetekarian honela baloratu zuen epaiketa: “Hauxe da Madrilen epaituko dena: herritarrok, desberdin pentsatzen dugun alderdietako kideok, ba ote dugun elite ekonomikoari etekin izugarriak sortzen dizkien azpiegiturak geratzeko zilegitasunik”.

Apirilaren 12ko saioan, Iñaki Errazkin eta Ainhoa Intxaurrandietari galdeketa egin zioten eta Denis Itxaso eta Arcadio Benitez aritu ziren demandak proposatutako lekuko gisa. Benitez Eibarko zinegotzia da (PSEkoa) eta Debabarrena Mankomunitateko lehendakaria.

“12 urte besterik ez dauzkagu klimaren beroketa katastrofikoa saihesteko”

NAZIO BATUEN ERAKUNDEAREN IPCC KLIMA ALDAKETARI BURUZKO GOBERNU ARTEKO TALDEA

Dagoeneko Lurra gradu bat beroago dago industrializazioa hasi aurretik baino, eta ondorioz hasi da ikusten katastrofeen ugaritzea (urakan gogorragoak AEBetan, lehorte harrigarria Lur Mutur Hiri inguruan, oihanetako suteak Artikoan...). IPCCren txostenaren arabera, planetak ez dauzka 12 urte baino gehiago beroketa globalaren muga 1,5ºC-ren mugaren azpitik atxikitzeko. Hortik aurrera, gradu erdiko edozein igoera aski izango da milioika jende harrapa ditzaten lehorte, uholde, muturreko beroaldi eta pobreziak. **2018-10-08**

GAIZKI ERRANKA

Dantza egiten duen herria

Santi Leoné
@ororostorm

Bizitza sozialik ez dudanez, telebista aitzinean jartzen naiz larunbatero. Jakina, gure telebista nazionala dut paratua urrutiko aginteko bat zenbakian, eta larunbatero, gainerako kateetan Sarah Connor telefono gidan izen horretako hirugarrena izateagatik eskerrak ematen ari den bitartean, gai baten gaineko aldaerak aurkitzen ditut ETB1en: jendea dantzan –mariatxiak, habanerak, zernahi– herriko plazan. Gaur egun biziko balitz, Voltairek bere definizioa moldatu beharko luke: "Euskaldunak, ordu orotan ETB1en dantza egiten duen herria".

Eta tira, niri ere, *Kutsidazu bidea, Ixabel*-eko Luis edo Koldo mediku edo sendagileari bezala, guztiz laket zait herriko jende xehearen pozaldi jolastiarra, baina nahiago nuke ETB1eko xori horrek ETB2n eginen balu habia. Baina badakigu, ederki jakin ere, hori ez dela posible. Eta, gauzak argitze aldera, akaso komenigarria litzateke maiz egiten dugun galdera bati buelta ematea: beharbada ETB1en zer egin daitekeen galdegitea baino emankorragoa izaten ahal baita zer ez den egiten ahal ETB2n. Eta zergatik.

Herriko plazako dantzak ez dira sekulan ETB2ra pasatuko. Ez, bederen, larunbateko *prime time*an. Ez dira sekulan bigarren katera joanen, ETB2 publiko normal baten behar normalak asetzen saiatzen den telebista normala delako. ETB1, berriz, anomalia da. Edo anomalia balitz bezala jokatzen dute haren arduradunek, *working theory* hau buruan dutela: euskalduna izatea gure txokoak maitatzea baita. Habanerak, Lekeitioko Sanpedropean. Larunbat gauean.

Nonbait, batua vs euskalkiak eztabaidak badu bere isla ikus-entzunezko produktuetan: hurbila, hunkigarria eta konparaezina dena baina nolanahi tratatzen ahal dena, ETB1en; homologatua, unibertsala –zilegi bekit hitza–, bertzeen pare jartzen gaituena eta, ondorioz, serio hartu behar dena, ETB2n. ■

ANALISIA

Harmailetako animoek ez dute oihartzunik bulegoetan

Jon Torner Zabala
@jtorner
ARGAZKIA: @EFF_FVF

15.132 ikusle bildu ziren urriaren 12an Gasteizko Mendizorrotza futbol estadioan, Euskal selekzioak duela bi urte San Mamesen jokatutako partidan bezainbeste. Orduko hartan baino giro askoz ere hobea zegoen halere harmailetan, nabarmen biziago zeuden animoak. Txaloak beraz zaleentzat, duela bi urte hilzorian ikusten genuen proiektuarekiko ilusioa pizteagatik.

Venezuelaren aurkakoa FIFA datetan jokatu da, eta horrek ere lagundu du, oihartzun handiagoa lortzeaz gain, bide ematen duelako aurkari indartsuagoen aurka jokatzeko eta erakusteko Euskal selekzioa gai dela eurei irabazteko.

Izan da, dena den, nabarmendu dutenak zale batzuen "jarrera gaitzesgarria", tartean hainbat hedabidek, baita Eusko Jaurlaritzako Kultura sailburu Bingen Zupiriak ere: "Harmailak ia beteta. Lastima batzuek erakusten duten errespetu falta. Lan asko egin beharko da nazioartean onar gaitzaten eta jokabide batzuek ez dute laguntzen. Eskerrak jokalariei. Ez dut gogoko Euskal Selekzioa aldarrikatzeko Espainiako banderak erretzea, arerio politikoa iraintzea, gure ikurrak ez errespetatzea, Ajuria Eneara petardoak botatzea eta kirolarekin zerikusirik ez duten kontuak kirol aldarriekin nahastea".

Ez, mesedez, ez dut gehiago entzun nahi politika eta kirola ez direla nahasi behar. Ez dugu berriro azalduko lelo horrek ezkutatzen duen mezu/borondate engainagarria. Horren ordez, administrazioak azaldu beharko luke zer egin eta egingo duen euskal selekzioa ofiziala izan dadin. Agian sukalde-lan gogor eta zikinetan dabiltza murgilduta (FIFA datetan jokatzea ahalbidetu izanak demostratuko lukeena neurri batean), baina ematen duen itxura da ez dela nahikoa egiten.

Jon Redondok, Jaurlaritzako Kirol zuzendariak, urte hasieran *Diario Vasco*k plazaratutako elkarrizketan zioen Gabonetako partidek ez dutela zentzurik, eta administrazioak ez duela horretara bueltatzeko asmorik. Bost nazioen balizko txapelketaz mintzo zen, eta adierazi zuen nazioartearen aitortza lortzeko "herrialde serioa garela eta talde indartsua dugula" erakustea ezinbestekoa dela, eta Euskal Federazioari dagokiola nazioartekoari eskatzea barnean hartzeko.

Ez da bide samurra, ertz ugari baititu auziak, Mendizorrotzara joan ziren Nafarroako zaleek Arabara sartzean ikusi zuten "Euskadi" ongietorri kartelak azaleratzen duen moduan, baina, partida irabazteko ez da nahikoa jokalariek golak sartzearekin.

EKONOMIAREN TALAIAN

Aurrekontu sozialak lehenetsi

Juan Mari Arregi

EH Bilduk eta Elkarrekin Podemosek Lakuako gobernuari EAEko aurrekontuak onartzeko egindako proposamenek mahai gainean jarri dute hauen garrantzia. Ez da gauza bera PPk eta PSEk aurrekontuei babesa ematea –euren eskaerak aintzat hartuz gero– edo Eusko Legebiltzarreko ezkerreko bi taldeek ematea; azkenekoon aldarrikapenak askoz zorrotzagoak baitira ikuspegi sozialari dagokionez. EAJk bere jarrera zehaztu beharko du eta erabaki zeinen babesa nahi duen. Eta hori bere lehentasunen arabera egingo du.

Bai EH Bilduk eta bai Elkarrekin Podemosek egindako proposamenek Euskal Herriaren zati honen benetako testuinguru politiko eta soziala jasotzen dute, eta kalean dauden arazo larriei erantzuten diete: gaurko eta geroko pentsionisten egoera –batik bat alargunena–, enplegua, prekarietatea, soldata arrakala, desoreka soziala, La Navalen etorkizuna, eta abar. Egia da proposaturiko neurrien kostu ekonomikoa zenbatu behar dela eta Eusko Jaurlaritzak zer aukera dituen aztertu beharko lukeela oposizioarekin.

Baina Lakuak jada esan du ez dela bideragarria ekonomikoki. Logikoa. Bideragarritasuna, ordea, lehentasunen araberakoa da: badago dirua armentzat, poliziarentzat eta ejertzitoarentzat, AHT eta antzeko azpiegitura antisozialentzat; badago dirua politikarien soldata milioidunak ordaintzeko, Lemoizko "mamu nuklearra" eta militarren kuartelak mantentzeko.

Agian 1.080 euroko gutxieneko pentsioa gaur egun ez da posible... baina norabide horretan aurrera egiteko negoziatu daiteke. Eta La Naval salbatzeak ez du esan nahi soilik ontziolako lanpostuak mantentzea, eskualdeko zeharkako beste milaka langile eta autonomoren bizibidea salbatzea ere bada. Lehenesten den hori guztia egin daiteke.

ANDONI CANELLADA / FOKU

Sei urte ondoren hasi da Iñigo Cabacasen hilketa argitzeko epaiketa

BILBO. Sei ertzain ari dira epaitzen, egun hartan aginte ardurak zituztelako edo gomazko pilotak jaurti zituztela onartu dutelako. Beste ertzain batzuek ere egin zuten tiro, baina oraindik ez da lortu jakitea nor diren. Irudian, Fina eta Manu, Iñigoren gurasoak, epaiketa bezperan egindako elkarretaratzean. **OKERRAK ZUZEN:** Aurreko zenbakian esan genuen eskola segregazioari buruzko herri-ekimen legegilea zela Eusko Legebiltzarrera iritsi zen lehena. Berez, plenoan ekimena herritar batek defendatu duen lehen aldia zen.

Pinuen gaitzari aurre egiteko plana aurkeztu dute

Argia

Dagoeneko EAEko pinuen %33,15 kaltetu dituen onddoari aurre egiteko plana aurkeztu dute Eusko Jaurlaritzak eta Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako aldundiek. Gaitza erasotzeaz gain, sektorea indartzea ere badute helburu.

Oxido kuprosoa

Aire bidez, oxido kuprosoa erabiltzea proposatzen du planak, beste hainbat neurriren artean. Argudiatu dute antzeko kasuetan erabili dela eta emaitza onak lortu direla. Baina kobre oxidoa osasunarentzat kaltegarria dela kritikatu dute batzuek dagoeneko.

Hiru helburu

Planak hiru xede nagusi ditu: pinuen gaitza eta eragiten dituen kalteak ezagutzea, onddo kaltegarriari aurre egiteko neurriak martxan jartzea, eta basogintzaren sektorea berrindartzea. Merkataritzaren ikuspegitik interesgarriak diren espezieekin esperimentatzea da asmoa.

Naturkon

Naturkon Gipuzkoako natur elkarteak gogor kritikatu du administrazioaren eta Baskegur elkartearen jarduna. Oinarrian, dio, ez dela gaur egungo baso politika zalantzan jartzen. "Ez da iraunkortasunera bideratutako kudeaketa-eredurik lehenesten".

INGURUMENA

%14

Plastikozko kutsadura guztiaren %14 Coca-Cola, PepsiCo eta Nestlé konpainiek sortzen dute.

10

konpainia dira plastiko kutsatzaile nagusiak: Coca-Cola, PepsiCo, Nestlé, Danone, Mondelez International, Procter & Gamble, Unilever, Perfetti van Melle, Mars Incorporated eta Colgate-Palmolive.

IRRATI BERRIA

Info7 irratiak emititzeari utziko dio, jauzi bat eman eta urte berriarekin batera euskara hutseko proiektu berri bati ekiteko. Proiektu berriak Hego Euskal Herrian legaltasun osoz emititzeko baimenak lortu ditu.

ERASO SEXISTAK

Donostiako epaitegian deklaratu beharko du hainbat emakumeri modu jarraian eraso egin zien Haritz Varela ezker abertzaleko eta Donostiako Piratetako kide ohiak. Hamar emakumek jarri dute salaketa.

EUSKARA

Nafarroako Gobernuak, lehen aldiz, laguntzak emango ditu helduek euskara ikas dezaten. Euskarabideak 150.000 euro bideratuko ditu, urriaren 1etik abenduaren 31ra bitartean hasiko diren ikastaroak abian jartzeko.

“Mitxoletak nahi ditugu”, pestizida guztiak orain debekatzeko aldarria

Pello Zubiria Kamino
@pellozubiria

Urriaren 5ean milaka pertsona bildu dira Frantziako Estatuko hirurehun hiri eta herri baino gehiagotako udaletxeen aurrean, *Nous voulons des coquelicots* (Mitxoletak nahi ditugu) deialdiarekin bat egiteko. Bi urte iraungo duen kanpainaren antolatzaileek ez dute huskeria eskatzen: pestizida kimiko guztiak debekatzea eta oraintxe bertan. Bioaniztasunaren hondamendiari eta gizakien pozoiketari behingoz erremedioa jartzea aldarrikatuko dute hileroko lehen ostiraletan.



ARGIAren internetez bidezko irakurleak “*Mitxoletak nahi ditugu*” lehenbizikoz Martta Irigoien amikuztarrari esker irakurriko zuen, Nicolas Hulot ministro ekologistak Frantziako Gobernutik ihes egin zuela eta irailaren 26an plazaratu zuen kronikaren izenburuan.

Irigoienek aurkeztu zuen Frantzia bi urtez inarrosi nahiko lukeen kanpaina berria, nagusiki Fabrice Nicolino *Charlie Hebdo* astekariko langile eta ingurumen gaietan idazle ezagunak sustatua: “Hilabetean behin, bakoitza bere eskualdean, pestiziden gaien inguruan ekintza batzuk egin nahi dituzte, jendea biltzeko eta sentsibilizatzeko“. Urriko lehen ostiralean, 5ean, milaka herritar bildu ziren 300dik gora herriko etxeren atarietan eta hamar egun geroago 300.000 sinadura eskuratuak zituzten.

Ondo ikasi “*Nous voulons des coquelicots*”, ez baita oharkabean pasatuko. Hasteko, pestizida guztiak berehala debekatzea eskatzen duen manifestu laburrak merezi du osorik euskaratzea. “Pestizidak dira bizirik den oro suntsitzen duten pozoiak. Euri tantatan daude, goizeko ihintzetan, loreen nektarrean eta erleen hesteetan, haur jaio berrien zilbor-hesteetan, txorien habietan, ama guztien esnetan, sagarretan eta gerezietan.

Pestizidak tragedia bat dira osasunarentzat. Minbiziak eragiten dituzte, Parkinsonak, haurrengan buruko eta mugikortasunari lotutako gaixotasunak, antzutasuna, jaiotzatiko malformazioak. Pestiziden eraginak gutxietsi egiten ditu erotuta dagoen sistema honek, aurrera ihes egitea nahiago baitu. Pestizida bat debekatzen denerako, beste hamarrek hartzen dute haren lekua. Eta milaka daude.

Dagoenekoz ezin dugu gure herrialdea ezagutu. Natura itxuragabetuta daukagu. Txorien herena desagertu da hamabost urtetan, tximeleten erdia hogeitan, erleak eta beste polinizatzaileak milaka hiltzen dira, igelak eta matxinsaltoak suntsitu egin direla dirudi, basa loreak bitxikeria bilakatu dira. Bueltatu guri geure mitxoleta eta nabar-loreak! Itzuli guri munduaren edertasuna!

Ez, ez dugu horrela jarraitu nahi. Ezta ezeren truke ere. Babesa exijitzen dugu. Gure agintariei exijitzen diegu Frantzian pestizida guztiak debekatzea. Ez bihar. Orain. Aski dugu hitzez: ekintzak nahi ditugu”.

Kutsadura kimikoaren presentzia itogarria da, sarri ikusezina izan arren. *Charlie Hebdo* astekari frantsesaren –tartean dago Fabrice Nicolino manifestuaren sustatzaile nagusia, aldizkariak jasandako atentatu basatian zauritua bera ere– 15 lankideren ileak ikertuta, denetara 140 pestizidaren arrastoak aurkitu zizkieten, pertsona bakoitzari 34 eta 50 artean, nekazaritzan erabilitako botikez gain etxeetan usatzen diren produktuen arrastoak.

Alarma bazter guztietaraino zabalduta dago. Kioskoetan aspaldiko aldizkari salduenetakoa den *Marie Claire*-en antzeko azterketa bat enkargatu zuten berrikitan, erredakzioko kideen haurretatik seiri egiteko. “Neurtu nahi izan dugu zein eragin duen gure umeengan egunero jasaten duten bainu kimikoak. Eta ondorioek ez dute zalantzarik uzten: haur guztiak daude kutsatuta, sarri oso kezkagarriak diren mailataraino”.

Marie Claire-eko enplegatuen haurretako bakoitzak 30etik 62ra molekula kimiko ezberdin zeraman soinean: pestizidak, kontserbatzaileak, kutsagarri plastikoak, parabenak, botikak... Tartean, legez debekatutakoak ere bai. Ez gara ari toxikotasun akutuaz, kronikoaz baizik. Horrelakoetan pozoian kaltegarria ez dela dosia, toxikoaren eraginaren maiztasuna baizik.

Pozoi bat ez, pozoien industria gelditu

Frantziak pestiziden erabileran Europako txapeldunorde fama dauka, aurretik soilik irabazten diola Espainiak. Hexagonoan kutsagai kimikoen eztabaidak badu indarra, baina emaitza zehatzik ikusi barik. Gobernuak 2008an *Ecophyto* plana jarri zuen abian 2018rako pestizidak %50 murrizteko asmoz eta lortu duena da... %12 ugaritzea!

“Txunditzekoa da –dio Fabrice Nicolinok– biziaren desagertzearen abiadura izugarria. CNRS [Espainiako CSICen parekoa] eta Historia Naturalaren Museo nazionalaren artean egindako ikerketa batek erakutsi du 15 urtean desagertu dela Frantziako hiru txoritik bat. Frantziarako ere balio duen ikerketa aleman

'La Voix du Nord' egunkariari hartutako argazkian, zenbait herritar bilduta Angulemako udaletxearen aurrean urriaren 5ean, hileko lehen ostirala, 'Mitxoletak nahi ditugu' mugimenduaren deialdiari erantzunez. Pestiziden eta bestelako kutsadura kimikoen eraginez suntsitzen ari diren naturaren eta herritarrengan zabaltzen ari diren eritasunen ikur izan nahi du soro bazterretako mitxoletak.

batek erakutsi du xomorro hegalarien %80 desagertu dela dagoenekoz. (...) Mundu guztiak daki eta aldi berean inork ez du ezer egiten. Ikusle bezala gaude begira espezie bizi asko eta gizakion osasuna bera mehatxatzen duen katastrofeari. Ez naiz ari bakarrik Birmaniako oihanez edo Galapago uharteetako itsasoaz, Frantzia bera aldatu da 50 urteotan. Erreparatu besterik ez dago tximeletei: gaur oso bakan ikusten diren tximeletok bazter denetan ikusten ziren gazte nintzenean, zelai guztietan".

Berrikitan Frantziak debekatu ditu neonikotinoideak, erleen desagertzearen erantzule nagusietakoak. Baina horrek ez ditu kontsolatzen "*Nous voulons des coquelicots*" manifestuaren bultzatzaileak: urte mordoa pasatu da debekua bitartean, ezkerreko bezala eskuineko gobernuek Bayer multinazionalari baimendu diote denbora irabaztea bere inbertsioei errentagarritasuna atera arte eta azkenean debekatu dutenean... multinazionalek dozenaka molekula berri dauzkate galaraziaren lekua betetzen.

"Gerra hasi aurretik galduta daukagu baldin eta ez badugu auzitan jartzen sistema bere osotasunean. Edo atakatzen dugu pestiziden sistema edo kondenatzen ditugu gure buruak etengabeko kanpainetara, behin eta berriro galduko ditugunak. Menderatu ezineko sistema da, Estatuaren aparatuan sustraituta dagoena, Nekazaritza Ministerioak eta INRA ikerketa erakundearen zati batek sustatzen duena, nekazarien FNSEA sindikatu nagusiak..."

Sinadura bilketatik harago, *coquelicotek* bi urtetan bost milioi herritar mobilizatu nahi dituzte, ekintza nagusitzat hartuta hileroko lehen ostiralean herriz herri egingo diren elkarretaratzeak, horien inguruan asmatzen joango diren mobilizazioekin. Eta helburu garbi bat: gobernuak debeka ditzala pestizida kimiko guztiak. Lortuko duten? Kale eginez gero, sustatzaileei geratuko zaie zalaparta galanta antolatu izanaren kontsolamendua. Balekoa suertatuko balitz, izugarria izan liteke jarduera kimiko oso bat legez kanpo uztea Europaren bihotzean ... eta agian Eusko Legebiltzarrean ere aipatuko lukete.

"Gizarteak ez badu bere burua defendatzen erraietaraino sartzen dizkioten pozoien kontra, nekez defendatuko da klimaren zoratzearen edo bio-aniztasunaren desagertzearen kontra. Eta onartu egingo ditu krisi ekologikoaren ondorio guztiak. Horregatik aldarrikatzen dugu jauzi historiko baten beharra". ■

«Umorearen izenean ez dira gauzak banalizatu behar»

Nerea Arriola

Txantxarik ez umorearekin

Sarritan gertatu zaio Nerea Arriolari; azkena, uda honetan bertan: ezezagunak hurbildu zaizkio, zaleak, bera zelakoan Idoia Txoperena, *Supertxope*, euskal youtuber sonatua. Hura, baina, kanpaina politiko baterako propio pentsaturiko pertsonaia zen [Hiru Damatxo ideia faktoriak egin zuen kanpaina, Sortu alderdiarentzat]. Arriola, berriz, *Supertxope* gorputztu zuen aktorea dugu. Eta erizaina. Eta bakarrizketa-egilea. Eta…

Testua: Danele Sarriugarte Mochales

Argazkiak: Dani Blanco

Azken bi urteotan zer gertatu da: jolasean hasi eta azkenean jolasa seriotan hartu behar?

Bai, hori da. Bizitza guztian ibili naiz antzerkian, zortzi urtetatik. Baina duela bi urte erabaki nuen zerbait gehiago egin nahi nuela, erronka jo nahi niola nire buruari, zeren oso eroso nengoen ikastolako antzerki eskolan, eta izena eman nuen TAEn [Donostiako Arte Eszenikoen Tailerra]. Urrian hasi zen kurtsoa, eta azaroan deitu zidaten *Supertxope* egiteko.

***Supertxope*k bizitza aldatu dizula esatea gehiegi esatea da?**

Bai [barreak]. Ez, aldatu dit. Aldatu dit bizitza zeren bat-batean inondik ere aurreikusi ez nuen egoeran nengoen, mundu guztiak nahi zuen nitaz jakin… Egia esan garai horretan halako bizitza bikoitz bat neukan.

Jendeak zer pentsatzen zuen, *Supertxope* zinela benetan?

Bai, pertsonaia egiazkoa zela. Berez, oso laudorio ona da, zeren horrek esan nahi du gauzak ondo egin zirela, sinesgarria zela, eta mezuak oso positiboak izan dira….

Baina?

*Supertxope*rekin pasa nuen estresik handiena izan zen espektatibak sortu zirela, jendeak sinetsi egin zuela eta pentsatu zutela hori zela nire umorea, erreferentziaz betea, eta nik beste estilo bat daukat.

Nerea Arriola Urberuaga
1988, Donostia

Erizaina da lanbidez, baina antzerkian ibili da betidanik, Zurriolako Ikastolako antzerki-taldean. Berak eman die gorputza eta ahotsa *Supertxope* euskal youtuberrari eta Info7 irratiko Dolores Mujika *Dolox* pertsonaiari. Duela bi urte egin zuen lehen bakarrizketa, eta besteak beste, zeregin horretan dabil orain han eta hemen. Aurten bukatu du antzerki-prestakuntza, Donostiako Arte Eszenikoen Tailerrean (TAE).

Antzezten bai, baina umorea egiten ikusi zaitut batez ere. Hortik kanpokoak ere egin nahi zenituzke?
Dena egitea gustatuko litzaidake. Drama ere oso polita da, beste matiz batzuk dauzka, beste erritmo bat dauka eta oso interesgarria da. Umorea beste zerbait da.

Bereziki eroso sentitzen zara umorean?
Erosoago sentitzen naiz draman. Bai, zeren gehiago identifikatzen naiz pertsonaiekin, sentimendu unibertsalagoak dira: denok dakigu zer den tristura, denok dakigu zer diren sentimendu konplexu horiek, eta umorea, berriz, oso pertsonala da, eta gainera nirea doa publiko oso zehatz bati zuzenduta.

Zeini?
Emakumeei.

Jende asko da.
Jendearen erdia.

Eta zergatik haiei?
Ni emakumea naizelako.

Baina emakume guztiak ez dira zu bezalakoak izango…
Ez, arrazoia duzu. Baina behingoagatik gu ere protagonista izateko, eta gure perspektiba emateko. Aldi berean, nik ez dut emakume guztien perspektiba ematen, nik nirea ematen dut.

Noiz egin zenuen lehenengo bakarrizketa?
Sardiñerrian [Donostiako Sardiñerak kofradiaren festan]. Duela bi urte. *Pixaren iraultza.*

Esango nuke badela mugarri bat: pertsonaiak egiteari utzi eta bakarrizketak egiten hasi, zeuretik abiatuta.
Nire burua estutu nuen pixka bat. Inoiz egin gabeko zerbait zen: nigandik abiatuta hitz egin. Sardiñeron bileran aipatu genuen nahi genuela gala bat egin, ea nor zegoen prest aurkezteko, eta esan zidaten ea monologo bat egitera animatuko nintzen. Eta esan nuen: zergatik ez? Argi neukan pixari buruz hitz egin nahi nuela.

Zergatik?
Iruditzen zaidalako oso adibide ona dela esplikatzeko nola kokatzen den gizartea nire ustetan: gizon-emakume bereizketa hori, publiko-pribatu bereizketa hori, eta baita gorputzen menderakuntza hori ere. Iruditzen zait zerbait oso bisuala, denok egin duguna, eta gainera gure jai-gune teorian parekide eta feminista horietan gertatzen zaigun egoera bat delako.

Eta zer moduz joan zen bakarrizketa?
Oso ondo, oso polita izan zen. Oso urduri nengoen, eta beldurtuta ere, zeren lehenengo aldiz ari nintzen nik sortutako zerbait nire izenean esaten. Pertsonaiarekin baduzu babes hori: pertsonaiak esaten du, ez zuk. Azken finean, bakarrizketak ere badira interpretatzeko modu bat, zeren ni egon naiteke hemen modu batean eta bat-batean igo oholtzara eta aldatu nik nahi dudan energiara, baina egia da nire izenean hitz egin nuela. Jendea sentitu zen oso identifikatua. Ondo pasa zuten, barre egiten zuten, eta hori da berez helburua, nahiz eta ikasten ari naizen ez dela helburu nagusia. Gainera, balio izan zuen debate bat planteatzeko. Batek esan zidan: "ni ibili naiz borrokan komun gehiago jartzeko, eta orain argumentuak eman dizkidazu". Umorearen bitartez, errazago sartzen dira gauzak.

Zer kritikatu zenuen zehazki?
Alde batetik, kopurua. Aurten gauzak aldatu dira, baina garai hartan gizonek zeuzkaten emakumeek halako lau toki pixa egiteko. Eta, gero, batez ere, publiko eta pribatuaren arteko banaketa kritikatu nuen. Kalean pixa egiteko ere –badakit ez dela egokia–, baina kalean egiteko ere, guk, emakume bezala, nola ezin dugun gure gorputza erakutsi edo probokazioa delako edo esan digutelako kontuz ibili behar dugula minik ez hartzeko, bada are eta moztuago gaude. Ez

da bakarrik kopuru kontua, baizik eta menderakuntza kontua.

Azken boladan ikusmin handia piztu du bakarrizketa batek: Hannah Gadsbyren *Nanette*. Ikusi duzu, ezta? Zer iruditu zaizu?

Zoragarria.

Zer gustatu zaizu?

Dena. Bera. Bere onda. Eta, noski, esaten duena. Bakarrizketaren hasieran esaten du umorea utziko duela, eta horrek pentsarazten dizkizu gauza asko. Nik ez dut uste umorea utzi behar denik, baina umorearen izenean ez dira banalizatu behar gauzak, umorea erabil daiteke kritika oso gogorra egiteko. Eta Gadsbyk hori egiten du. Egurra banatzen du, baina asko ikasten da, oso ona da. Txundituta geratu naiz. Hamar bat aldiz ikusi dut.

Lodia eta lesbiana den aldetik, Gadsbyk dio bere buruaz barre egin izan duela ondoren hitz egin ahal izateko.

Ikusi nuenetik, askotan pentsatu dut ea zer egiten dudan nik, batez ere nire gorputzaren inguruko monologoetan. *Nanette* ikusi ondoren, nire gorputzari buruzko monologoaren amaiera aldatu dut. Aldatzen ari naiz. Azkenean, umoreak ere badu bere hegemonia, eta gutxi dira umore kritikoa egiten dutenak. Baina izan daiteke despistatzeko estrategia bat: hasten naiz barre egiten nire buruaz, eta gero, zapla. Onartzen dizuet nirekin barre egitea, baina ez dezagun ahaztu zein den errealitatea. Agian, barrearen atzean, nik trauma bat daukat.

Umoreak ez luke izan behar publikoa lasaitzeko modu bat baizik eta publikoa deseroso sentiarazteko modu bat?

Batzuetan, barre egiten dugunean, badirudi errealitatea ahazten zaigula, sortzen da halako mundu utopiko bat, dena dago ondo, denak maila berean ari gara hitz egiten, baina ez da hala. Nik hau uzten dudanean bueltatzen naiz nire bizitzara eta ez dut konpondu nire arazoa. Horregatik iruditu zitzaidan hain inspiratzailea Hannah Gadsby hau. Beharbada jendeak deseroso sentitu behar du batzuetan, ni deseroso sentitzen naizen bezala. Horrela ulertuko dute, eta enpatizatuko dute guk sentitzen dugunarekin, izan emakume, bollera, lodi... Gadsbyk dioen moduan, hori ez da neutroa. Bere monologoak balio izan dit nire buruaz gehiago hausnartzeko eta galdetzeko: zer kontatu nahi dut nik benetan? Zertarako egiten dut, jendeak barre egiteko, edo benetako kritika egin nahi dut? Zein da nire helburua? Ikuspegi horretatik birplanteatu ditut bakarrizketak. Agian gauza bera esaten jarraituko dut oraingoz, baina intentzioa beste bat da.

Jada ez da barre eginaraztea?

Bai, hori ere bai, zeren barrearen bidez jendearekin konektatzen duzu, eta niri gustatuko zitzaidakeen loditasunari buruzko monologo bat entzutea gazteagoa nintzenean. Horrela konturatuko nintzen ez nengoela bakarrik, edo nik sentitzen nuen hori ez zela hain arraroa. Eta gai deserosoak dira.

Zergatik? Zalantzan jartzen gaituztelako agian?

Noski. Etengabe. Ni orain kritiko samar jarri naiz loditasunaren kontuarekin eta jendeari gogorarazten diot: kontuz zer esaten duzun. Nire lagun batek, pertsona argal bat, esan zidan deseroso sentiarazi nuela, eta esan nion nire helburua ez zela bera deseroso sentitzea argala izateagatik, baizik eta nire errealitatea ulertaraztea, eta kito. Deseroso sentiarazten bazaitu agian izango da gaur egun erabiltzen ditugun hitzekin erreproduzitzen dugulako egoera hori, izan daiteke loditasuna edo beste errealitate asko. Adibidez, guk, zuri izanda, seguruenik, pertsona beltz edo migratzaile baten bizitza entzuten baldin badugu, deseroso sentituko gara, zeren gu jartzen gaitu kolokan. Baina aldi berean oso positiboa da.

Gaiz beste egingo dugu orain. Lanbidez, erizaina zara. Zergatik aukeratu zenuen?

Oraindik ez dut jakin horri erantzuten. 18 urte eta erabaki bat hartu beharra... Donostian zen karrera, horrelako arrazoiak daude. Orain agian ez nuke aukeratuko, edo agian bai. Egia da asko erakutsi didala erizaintzak. Txikitan beti esaten nuen ez nuela sekula ospitale batean lan egingo, eta orain hortxe ari naiz. Bizitzaren bueltak.

Erizaintzari buruzko bakarrizketa bat egin behar bazenu, zer azpimarratuko zenuke?

[Isilunea]. Oso lan polita da, baina aldi berean oso nekagarria, pertsonekin lan egitea oso nekagarria baita. Gainera, pertsona hauek daude egoera oso sentikor batean, ulertu behar da hori.

Egingo banu erizainentzako monologo bat, umore beltza erabiliko nuke. Oso beltza. Zergatik? Bada behar dugulako barre egin, zeren oso egoera gogorrak bizi ditugu, eta ez daukagu deskargatzeko tarterik. Bestela, ez dakit, mediku eta erizainen arteko harreman hierarkizatu arraro hori aipatuko nuke, non medikua jainkoa baita eta erizaina bere esklaboa [barreak].

Erizaintzak izenean bertan darama zaintza, eta uste dut emakume gehiago ari direla horretan gizonak baino… Hori ere aipatuko zenuke monologoan?

Bai, genero ikuspegia sartzea beti dago ondo. Gainera, gure kasuan, badago lotura estu bat emakumeen eta zaintzaren artean: ez baldin bagara erizain onak,

ez gara emakume onak. Denbora guztian esaten didate nire lana bokazioa dela. Bada ez. Nik ikasi dut nire lana. Ez dut esaten ez dudanik ezer jartzen nire aldetik, zeren pertsonekin lan egiten baduzu jarri behar da, baina ordaintzen didatelako egiten dut nik lan. Badago horrelako gauza bat, mojarena bezala... Bada ez. Egia da harreman estuak direla, oso pertsonalak, baina ikasten da. Karreran hasi eta berehala, hauxe esan zidaten: enpatia ikasi egiten da. Landu. Batzuk berez daukate, baina landu daiteke. Emakumeak gara, baina izan gaitezke zaintzaile txarrak, ez da zerbait instintiboa. Nik ikasi dut nire lana egiten, eta urteekin ikasi dut egoerak maneiatzen. Nire bizitzan desastre bat naiz zaintzarekin. Nire ahizpa ni baino zaintzaile hobea da, eta ez du erizaintza ikasi.

Bokazioa den horretara itzuliko gara berriro. Bukatu duzu antzerki-formakuntza. Zer moduz?

Pozik. Oso amaiera ona izan zen, bi orduko obra bat muntatu genuen. Asko-asko ikasi dut, nire buruaz batez ere. Egon zen irakasle bat bereziki apurtu ninduena, eta behar nuen apurtzea. Eta orain zer?

Hori da. Orain zer?

Gazte udaleku feministetan egon nintzen monologo bat egiten, eta horri esker dei batzuk jaso ditut jada. Uste dut hortik tiraka egingo ditudala zenbait gauza. Ez dut nire burua bakarrizketa-egile gisa ikusten, baina zergatik ez? Asko ikasten ari naiz. Gero, gustatuko litzaidake antzerki munduan sartzea, antzerki tradizionalean. Pertsonaia bat, testu bat. Hori ere bada erronka. Ea zer ateratzen den. Bestela, bitartean, ospitalean jarraituko dut. Hori bai dela antzerkia. ■

Azken hitza:
Paramedic Courtney

Kazetariak aspalditik zerabilen buruan Arriola elkarrizketatzeko asmoa, besteak beste, pertsona polifazetikoa delako. Orain gutxi jakin zuen, ordea, orain arte aipatu gabeko beste alor batean ere bazebilela gure gaurko protagonista: bikoizketa lanak egiten ditu. "Ikastaro bat egin nuen, eta nire irakasleak dira gaur egun hemen Donostian grabatzen diren gauza askoren zuzendariak. Beti egoten dira adi, eta pertsonaia berri bat ateratzen bada, deitzen dizute. Ni naiz oso laugarren, bosgarren, seigarren mailako pertsonaiak egiten dituen ahots txikitxo horietako bat. Adibidez, orain ari dira emititzen *Chicago Med* telesaila, eta ni naiz Paramedic Courtney [barreak]. Hori da nire lehenengo pertsonaia. Erdaraz".

Doughnutaren ekonomia

Aiala Elorrieta Agirre
EKONOMIALARIA
@aialuski

Doughnut esanda, Simpson zaleek *Homer* edo *Wiggum* polizia ikusiko dituzte erroskillak irensten. Telesail eta film estatubatuarretan oso errepikakorra da *donutsa*, alferkeria eta sabel borobilduaren irudia.

Kate Raworth ekonomialariak irudi honekin apurtu du ustekabean. Berariaz, ekonomia neoliberalaren irudi klasikoa irauli du: etengabeko Barne Produktu Gordinaren (BPG) hazkundea irudikatzen duen goranzko grafikoa borobildu egin du, donuts itxura emanaz. Oxford Unibertsitatean irakasle da Raworth eta bere *Donutsaren ekonomia* teoriak hautsak harrotu ditu.

Txalogarria iruditzen zait akademiaren mundutik, hain teoria aparta sortu izana helburu xume baina ezinbesteko batekin: nola azaldu fakultateko gazteei XXI. mendean ekonomia nola ikusi eta ikasi behar den? Nola eman zentraltasuna, ohiko teoria ekonomiko klasiko, liberal eta neoliberalek marjinetara zokoratzen dituzten aferei?

Ez dira izan lobby enpresarialek, ez elite ekonomikoaren interesek, ezta aldizkari zientifikoetan argitaratzeko grinak ere teoria hori marraztera bideratu dutenak. Bere kezka pertsonalek eta bizitzako bideek eraman dute horretara: Zanzibarreko emakume ekintzaileekin lanean ibili da urteetan, Nazio Batuen Erakundean aritua da *Giza garapena* txostenaz arduratzen den lantaldean eta *Intermon Oxfam*-en ikertzaile izan da. Jendartearen bizitzeko funtsezko beharrek kezkatzen dute, emakumeen, pobretuen eta zapalduen arazoez eta lurraren kolapsoaz arduratzen da. Asko edan du ekonomia feminista, ekologismo, eta bestelako teoria erradikaletatik.

Bi zirkulu zentrukidek osatzen dute *Donutsaren ekonomia*. Honela, barnealdeko zirkuluak esparru soziala irudikatzen du eta bertan jendarteak bizitzeko funtsezkoenak dituen beharrizanak taldekatzen dira: osasuna, etxebizitza, elikadura, ekitatea, justizia... Bitartean, kanpoaldeko zirkuluak ingurumenaren beharrak jasotzen ditu. Horretarako planetaren bederatzi muga nabarmentzen ditu: aldaketa klimatikoa, lurren erabilpena, bioaniztasunaren galeraeta kutsadura kimikoa, batzuk aipatzearren.

Txalogarria iruditzen zait akademiaren mundutik, hain teoria aparta sortu izana helburu xume baina ezinbesteko batekin: nola azaldu fakultateko gazteei XXI. mendean ekonomia nola ikusi eta ikasi behar den? Nola eman zentraltasuna, ohiko teoria ekonomiko klasiko, liberal eta neoliberalek marjinetara zokoratzen dituzten aferei?

Irudia multidimentsionala izateaz gain, oso dinamikoa ere bada. Izan ere, herrialde jakin baten ekonomiak une jakin batean duen "osasun" egoeraren erradiografia egiten du. Esate baterako, aldaketa klimatikoaren espazioa kolore ilunagoz tindatuta marrazteak muga hori sobera gainditzen ari garela erakusten du. Edota esparru sozialean, berdintasunaren espazioa zenbat eta ilunago tindatuago egoteak, desberdintasun sozial jasanezinak dituen ekonomia irudikatzen dute. Ekonomiaren ongizateari argazkia egitearekin bat, alarmak pizten ditu ekonomia jakin horrek eragiten dituen gehiegikeriak salatuz.

Raworthen teoriak teoria ekonomiko hegemonikoaren zutabeak eraitsi egiten ditu. Amaitu beharra dago BPGaren hazkunde mugagabea helburutzat izateareekin. Usu, teoria ekonomikoak hazkunde *jasangarria* deitu izan duenak, zerikusi gutxi izan du planetaren mugekin: denboran irauten duen etengabeko hazkundea baizik. Hitz gutxitan, ingurumenaren mugak eta jendartearen beharrak kontuan hartzen dituen ekonomia irudikatu du Kate Raworthek.

Trebakuntza saio bat prestatzen ari nintzela, deskubritu nuen Raworth eta aurkikuntzak erabat sorginduta utzi ninduen: errealitatetik eta errealitatearentzat sortuta dagoen teoria dela esango nuke. Errealitatearen beharretatik abiatuta, ikasleentzat diseinatuta. Kasualitate hutsez topatu nuela pentsatu nuen hasieran, baina berez, inkontzienteki bilatu egin nuen galdera bati erantzun nahian: nola azaldu daiteke ekonomia era tentagarri eta errealago batean? ■

Jin-ustia-parti

Bea Salaberri
IRAKASLEA
@beatxo

Amaia buru-belarri ari da Kanboko Marieniako lurren arrazoizko erabilera gauza dadin. Laborantza lurrak eraikigarri bilakatzekotan dira eta begitan harturik dituzte *showroom* erraldoiak, turistentzako egoitzak eta jostalekuak eraikitzeko. Amaiak nahiago luke herritarrentzat egoitza sozialak egitea eta zenbait lur laborantzarako atxiki. Ordulariaren kontrakoa hasi du bera baino handiagoak eta zekenagoak direnen parean.

Allende Larrunen gora doa goizean goiz, kaskoa mehatxatzen duen egitasmoa gelditzeko asmoz. Naturaren kaltetzea eta turistifikazio hutsaren politika ez ditu onartzen. Mendia muturreko endekatzetik salbatzeko esperantza bipila du.

Baionako merkatuko plazan, diotenez, 180 aparkaleku "berreskuratu" dituzte. Aldiz, ez dakigu nork berreskuratu dituen, segur aski bezeroak jin-erosi-parti aldizkatze bizian ikusi nahi dituzten komertzioek. Nehork ez du galdegin norengandik berreskuratu diren.

Beñat Etxalde elkartean ari da, etxebizitzaren kudeaketa manera berri bati buruz gogoetatzen, jabetza indibiduala eta espekulazioa saihestea du helburu. Arazo zaharrei aterabideak ekarriko dizkielakoan da. Ur ttanta uholdean itoa.

Erretiro goiztiarra harturik, 60 urteak bete orduko Euskal Herrira jin da Maixan. Problemarik ez ukateko garaje pribatua du, aita-amek ondorengoan utzi eraikin gotorraren behealdean. Egia erran, bera, futitzen da. Futitzea bere dretxoa delako. Carrefour eta Ametzondora doa, han autoa nahi bezainbat denboraz utz daiteke, urririk, eta hautu handia da prezio onean. Ez da hemengo produktorik? Nehork ez badu jakiten, nehor ez da kexatuko. Larunbatean itzuliñoa eginen du merkatura, gasna puska erosteko doia, Baionan Kantuz-en hitzorduan *Hegoak* kantatzeko eta bide batez eusko ahurtara xahutzeko. Horretaz ez du espantu gutxi.

Antton Olariaga

If bakarrik sentitzen da. Euskararen aldeko borrokalari, beregatik pixka bat ez baita asko, zerbait ez baita aski, ezin baitu soportatu frantsesez aritzearen "behar pedagogikoa"-ren argumentua, urrats mikrometrikoz aitzinatzen eta petatxuez pozten ez baitu oraino ikasi. Zer? Lagunek badute besterik gogoan: finantzak dira problema eta euskarak ez du dirurik ematen, kostatzen bai ordea, ardura sobera.

Zentroan bizi denetik Naroak harpidetza du karrikan aparkatzeko. Baina gaur kakaren erdian da, auzoko aparkalekuak moldatu direlako. Lana eta ikastolaren arteko joan jinak autobusez egin litzake baina trambusaren obra amaitezinak amaitzea zain da probatzeko ea zerbitzua inbertsioaren heinekoa den.

Iker eta Mizel laborarien defendatzeaz ez baitira kantitzen, politika egokiaren eta hurbileko kontsumoaren aldeko kanpainetan abiatu dira. Emaitzak euskotan ere onartuko dituzte.

Elix bazkal artetik hirira joan ohi da, barnealdeko herrietan atzeman ezin dituen gauza *chic* guziak erostera. Azkenaldian ohartu da saltegiek ingelesezko izenak dituztela: *Beauty center, Brand of quality goods, Only women*. Ingeles hitzik ematen ez duen jende arruntari arraroaren argumentua luzatuz. Bereizteko, bik besterik hautatu dute: *Xokola Etxetera* (sic) bitxi-exotiko-bertakoa batak eta besteak *Amatxi* errentagarria. Eskaparateei beha ametsetan egoten da Elix: hortxetako botak ontsa lituzke 220 euro ez balute balio. Kaka zaharra: ekonomiak eginen ditu, ba, gero ere, janarian.

Lagunartean badira gehiago; ez zaizkigu kabitzen. Jendea, garraioa, enpresa eta komertzioak, etxebizitza, turismoa, lurra, ekologia, euskara. Sail guziak gurutzatzen dira. Gure koadrila antolaketa egokiaren behar larrian da. Zoritxarrez, ez da oraino hori guzia koherente bihurtuko duenik agertu. ■

Neoliberalismoak euskarari (eta II)

Zigor Etxeburua Urbizu
KONTSEILUKO TEKNIKARIA
@zetxeburua

Hizkuntza-liberalismoak Euskal Herrian baditu jarraitzaileak. Ideologia horren erakusle duzue orain hiru urte Gipuzkoako udal kozkor batean gertatutakoa. Batzorde batean, galdera euskaraz egiten hasi zen herritarrari jarduna moztu eta gaztelaniaz egitea eskatu zion euskarako zinegotziak, bileran euskaraz ez zekien jendea bazegoela esanaz. Berriki ere, neuri erantzun dit gure hiriko euskarako zinegotziak ezin dudala pretenditu herritarrekin egiten diren udalaren batzarretan itzulpeneko sistemak erabiltzea, "horretarako behar dugu Euskaraldia" (hitzez hitz).

Ezaguna da ere funtzio publikoan euskararen beharra zalantzan jartzen ari direnen leloa. Berriki, batek liburua argitaratu du eta adierazi du: "Ez da behar inolako araurik funtzio publikoko sarbidean. Inolako esku-hartzerik gabe lortu beharko litzateke oreka, gizarteko euskaldunen eta lan publikoetakoen artean". Alderdi berekoak dira honakoak esan dituztenak ere: "Euskaraz bizitzea ez da oinarrizko eskubidea, hautu pertsonal hutsa baizik"; "euskararen inguruko adostasun soziala eta gizarte hausturarik ez izatea aldezten ditugu, euskaldunak gutxiengoa diren arren". Trumpek ez zuen hobeki adieraziko.

Koldo Mitxelenak izena jarri zion botere publikoen jarrera horri: tolerantzia. Liberalismo ekonomikoarekin parekatu zuen eta zehaztu zuen ez-egitean (omisioa) oinarritzen dela, ardurarik ez hartzean. Horren eraginez, hizkuntza batzuk lehenesten dira eta beste batzuk bazterrean uzten dira. Bere azalean pairatu behar izan du ideologia hori Arkaitz Zarragak, isuna jarri baitiote udaltzainari euskaraz egitea aginteari errespeturik ez erakustea dela leporatuta. Okerrena da, Arkaitzen hitza zalantzan jarri duela udalak, korporatibismorik makurrena erakutsiz. Nik sinesten dizut.

Jose Mari Zendoiak adierazi zuen, bere doktore tesian, neoliberalismoa antisoziala dela, askatasunaren izenean herritarrak bultzatzen dituelako haien artean lehiatsuak izatera. Bada utikan kapitalismoaren kume diren ismo horiek guztiak. Euskara bizia zor diegu pasa digutenei, eskuratzeko ahalegina egin dutenei, geure buruei eta datozenei. Horregatik, euskararen alternatibak eraldatzailea behar du izan, hiztun kopuruz txikiak direnak handi egingo dituena, bagarela nor sinesten duen herri gogoan oinarri hartua, naturala eta kontzientziaduna, Euskal Herria euskaratik eta euskaraz egiteko. Bertako kultura eta hizkuntza indartuz eta hedatuz, eta gure egoeran diren gainerako herriekiko samurtasuna adieraziz eta elkartasuna praktikatuz, mundu hobea egingo dugu, mundu anitz eta bidezkoagoa. ■

Zozogailuak

Edu Zelaieta Anta
IRAKASLEA ETA IDAZLEA

Dendak itxi aurretik mandatua egitea izan da hirian bakarrik ibiltzeko aitzakia. Erraz onartu diote etxean, mandatua egitetik bueltan, tabernaren batean gelditzea besapean daraman Julio Ramón Rybeiroren liburuari tarte bat eskaintzeko. Euri pixka bat ari badu ere, kontent doa E. bere bakardadetxo bilatuan.

Egin beharreko erosketa eginda, momentuaren pribilegioaz jakitun, ongi aukeratu nahi du pausa-lekua. Duela zenbait urte sartu gabeko ostatuan sartu da, lasaia eta argitsua delakoan. Barrara hurbildu orduko solasean hasi da bistaz ezagutzen duen jabearekin. Hogeita lau urte joan dira negozioa irekirik, eta, nahiz tabernak lehengo itxura orokorrari eusten dion, hiru aldaketa egin omen dituzte azken urteotan: paretako kolorea aldatu (hori argitik berde argira), billarrean egiteko atzealdeko lekua itxi (norbaitek jokatu nahi badu, aski du eskatzea) eta pantailak jarri (telebista bakarra lehen; lau pantaila orain).

Agudo egin du E.-k aldaketen gaineko ebaluazio mentala: kolorearena izan da gehien gustatu zaion erabakia; billarraren txokoak aspaldixko itxia dirudi; eta lau zozogailuak Rayo Vallecano–Leganés ematen ari dira. ■

Zein dira euskal kulturaren lehentasunak?

Gotzon Barandiaran Arteaga
IDAZLEA
@gotzonbarandi

Xabier Gantzaraini irakurri eta entzun diogu oraintsu, *Zuloa* saiakeraren harira: "Arte frantsesa dago, arte espainola, arte alemana... baina euskal arterik ez dago. Zergatik? Guk ez dugulako estaturik. Eta estaturik ez dugunez, kulturarik ere ez dugu. Zeren gaur ezin baita esan euskal kultura euskaraz pentsatu, sortu eta gauzatutakoa denik euskaldunak aztoratu barik. Euskal kultura frantsesez pentsatu, sortu eta gauzatutakoa ere bada" argudiatuko dizutelako. Estatua ez duenak, ez duelako arterik, ez duelako kulturarik. Guk ez dugu estaturik baina izan ditzakegu estatu ikuspegia Euskal Herri osorako eta Herri ikuspegia herriz herrirako. Azken hamar urteotan, "Itun-nazionala, estatu ituna, itun-politikoa, akordio soziala, kulturgintzaren autodeterminazioa" bezalako proposamenak errepikatu ditugu topaketa zein idatzizko artikulu andanatan. Egitura noiz lortuko zain egon gabe, izan genezake estatu ikuspegia: elkartu gaitezen kulturaren ekosistema osatzen dugun Euskal Herri osoko eragileak gure kulturarentzat estrategikoa zer den proposatu, eztabaidatu, adostu eta gauzatzeko. Saretu gaitezen, batzuetan auzolanean, bestetan elkarlanean, sinergian beti. Har ditzagun premiazko neurriak, alarmek urteak daroatzate-eta, piztuta. Euskararen herria hiru administraziotan zatituta egotea da euskal kultura normalizatzeko dugun oztoporik gaindigaitzetako bat, biziraupenerako ezinbestekoa da Lapurdi, Nafarroa Beherea, Zuberoako, Nafarroa Garaiko eta EAEko kulturgintza artikulatzea. Hori da estatu ikuspegia izatea, Luhuson egindakoak Oionen eragina duela sinistea. Izan dezagun Herri ikuspegia hasi txikienetik eta hirietara. Abiarazi ditzagun Kulturbilguneak herri guztietan, batu gaitezen herriz herri kulturaren ekosistema osatzen dugun tokian tokiko eragile guztiak. Emaitza oso onak ematen ari diren adibideak ditugu. 2018an "zein dira gaur egun gure kulturgintzak dituen premiak?", galdetzen diot neure buruari. Zaleak sortzea. Ez ezerezetik, dagokeenetik baino. Gure arazoa euskaldunak euren kulturara ekartzea da. Sortzaileak izango diren zaleak behar ditu euskal kulturgintzak, amateurrak eta profesionalak. Antolatzaileak izango diren zaleak: herri ekimenetan edota erakunde publikoetan arituko direnak. Kulturgintzaren industriari emanak biziko diren profesionalak bihurtuko direnak, kultur kazetaritza jorratuko duten zaleak, transmisioa bermatuko dutenak. Bestela ez dugu egundo kultur sistema osasuntsurik izango, bestela prekarietatea gaitz kroniko eta sendaezina bihurtuko zaigu. ■

> Elkartu gaitezen kulturaren ekosistema osatzen dugun Euskal Herri osoko eragileak gure kulturarentzat estrategikoa zer den proposatu, eztabaidatu, adostu eta gauzatzeko

Amul been nit ku leegalul

inor ez da ilegala

Atera aldarria kalera euskaraz eta wolofez!

Kamiseta bakoitzeko 2 euro Mbolo proiektura bideratuko dira.

Bilboko migratzaileak martxan jartzen ari diren garbiketa kooperatiba da Mbolo.

Erosi ARGIAren Azokan

azoka.argia.eus | azoka@argia.eus | ✆ 943 371 545

15 €
Bidalketa gastuak 4 €

NAFARROAKO EUSKARAREN LEGEA ALDAKETARAKO DENBORA AMAITZEN ARI DA

Nafarroako aldaketaren gobernua legealdiaren azken txanpan sartu den honetan, euskalgintzako hamaika ahots urgentziazko oihua zabaltzen ari dira: denbora amaitzen ari da. Nafarroa eta nafarrak hiru mailatan zatitzen eta sailkatzen dituen Euskararen Lege baztertzailea bertan behera uzteko eta lege berria idazteko azken aukera du gobernu honek. Zonifikazioa gainditzeko "orain da momentua", diote. Urriaren 27an manifestazioa deitu dute Iruñean.

Garazi Zabaleta
@tirikitrann
ARGAZKIA: JAGOBA MANTEROLA / FOKU

Ilusioa eta aukera. Horixe sentitu zuten milaka nafarrek 2015ean foru hauteskundeen emaitzak ezagutu zituztenean. Ilusioa, hizkuntza eskubideen alorrean eta euskararen normalizaziora bidean pausoak emateko aukera ireki zela ikusi zutelako. Garai ilunetatik zetorren Nafarroa: UPNren agintaldiak iraundako urte luzeetan euskara eta euskaldunak baztertzea nagusi izan zen herrialdean. "Corpus juridikoan, abian jartzen ziren plangintzetan nahiz euskarari eskainitako baliabideetan agerikoa zen gobernuak urtetan hizkuntza zaharrari egindako bazterketa", azaldu du Paul Bilbao Sarria euskararen gizarte erakundeen Kontseiluko idazkari nagusiak.

Aldaketaren gobernuaren garaipenarekin, aldiz, agertoki berria ireki zen Nafarroan, eta ordu arte euskalgintzan zihardutenen lanketa egoera berrira egokitzeko aldatu zen. "Euskalgintzak momentu horretan erabakitzen du gobernu aldaketa hori benetazkoa izanen dela soilik hizkuntza politikan ere aldaketa erreala ematen bada", azaldu dute Kontseiluko kideek. Eta

Kontseiluak 2016ko ekainaren 4an "Bide eman euskarari" lemapean egin zuen manifestazioa Iruñean.

zein da euskarari begira sakoneko aldaketa eman ahal izateko oinarrizko urratsa? Bada, Euskararen Legea –2017 arte gazteleraz *Ley del Vascuence* famatua– bertan behera utzi eta lege berria idaztea.

Nafarroa eta Lege Zaharra

30 urte baino gehiago daramatzate nafarrek 1986an parlamentuak onartutako Euskararen Legearen ondorioak pairatzen. Lege horretan biltzen den zonifikazioak Nafarroa hiru zatitan banatu eta herritarrak euskararekiko dituzten eskubideen arabera sailkatzen ditu. "Zergatik izan behar ditugu eskubide ezberdinak euskaldun bezala beste alorretako eskubide guztiak denontzat berdinak badira?", galdetzen du Susana Bidarte Andueza Lizarraldeko herritarrak.

Herrialde beraren barruan herritarrek eskubide ezberdinak izate hori Na-

farroan soilik eta euskararekin soilik gertatzen dela salatzen dute Kontseiluan. Haien arabera, parekidetasuna alor guztietara eraman beharreko gauza da, eta horregatik nafar guztiei eskubide berak aitortzea justiziazko eskakizuna da. Baztango Elurre Iriarte Bañezek, eremu euskalduneko biztanleak, gogoeta interesgarria egiten du zonifikazioaren eta eskubideen inguruan: "Ni eremu euskaldunean bizi naiz, baina eskubidea ez dut nik, nire eremuak baizik. Orduan, ni herritar bezala nire lurralde honetatik mugitzen banaiz, Iruñera edo Tuterara adibidez, eskubideak galtzen ditut. Hori, bada, ez da eskubide bat".

Aurrerapausoak bai, baina "kristalezko sabaia" muga

Azken hiru urteotan gobernuak euskararekiko jarreran aldaketak izan dituela ukaezina da Kontseiluko kideen ustez. "Orain Nafarroako lehendakaria euskaraz entzuten dugu, berriz ere hasi da euskararen bisualizazioa gobernuko elementuetan, laguntzak berreskuratu dira... badago jarrera bat", dio Bilbaok. Marko juridikoan, berriz, emandako aldaketa nagusietakoa da Nafarroako Parlamentuak 2017ko maiatzean 43 herri eremu ez-euskaldunetik eremu mistora pasatzeko hartu zuen erabakia. Eremu mistotik eremu euskaldunera, berriz, herri bakarra pasatu da: Atetz. "Mugimendu horiek guztiak positibotzat hartu genituen, zalantzarik gabe, baina ez dira nahikoak. Azkenean, eremu mistoan euskara ez da ofiziala. Egia da eskubide batzuk aitortzen direla, baina ez Baztango edo Etxarriko bati onartzen zaizkionak", dio Bilbaok.

Batez ere jarreran eta hitzetan egon da aldaketa Kontseiluaren eta elkarrizketatutako herritarren ustez, baina Nafarroan euskaraz bizi ahal izateko ezarri beharreko oinarrietatik oso urrun daude oraindik. "Gobernu berria sartu zenetik hainbat pauso txiki eman dira, baina legea ez bada aldatzen berdin du zer pauso ematen diren, lege horren arabera ez dugulako ezertarako eskubiderik", dio Alizia Iribarren Andueza 'eremu ez-euskaldun' deitzen den horretako tuterarrak. Gainontzeko herritarren aldetik ere antzeko erantzunak jaso ditugu: Lizarraldean, Iruñerrian, Baztanen... eguneroko bizitzan, praktikan, aldaketa handiegirik ez dute nabaritu, ez behintzat gobernuak emandako pausoengatik.

» Askoren iritziz denboraz oso justu baldin badabiltza ere, Kontseiluan uste dute benetako borondatea baldin badago legea aldatzeko aukera erreala egon badagoela

» Hiru zutabetatik abiatuko da urriaren 27ko manifestazioa, Nafarroako euskararen hiru eremuen sinbolo. Hiru zutabeak elkartu eginen dira gero, zonifikazioaren amaiera eta Nafarroa osorako ofizialtasuna irudikatuz

Euskararen 'sabaiaren' ideia darabil Kontseiluko Paul Bilbao Sarriak azken urteetan aurrera egiteko egon den oztopo nagusia azaltzeko: "Gobernuak abian jarri du urteotan euskalgintzarekin partekatua izan den plangintza estrategikoa, baina kontua da plangintza hori martxan jartzerakoan etengabe topatzen garela sabai batekin: legea da sabaia".

Lege berria idazteko Batzordea

Pasa zen otsailean zabaldu zen Euskararen Legea aldatzeko aukera berria Nafarroako Parlamentuan: EH Bilduk 2017ko urrian egindako eskaerari jarraituz, batzorde berezia sortzea erabaki zuen orduan parlamentuak. Zein izan da batzorde horren lana? Bada, euskararen lege berri baten proposamena egitea hiru irizpide oinarritzat hartuta: herritar guztien hizkuntza eskubideak bermatzea, zonifikazioa gainditzea eta euskararen ofizialtasuna Nafarroa osora hedatzea.

UPNk eta PPk batzordean ez parte hartzeko erabakia hartu zuten lehen saioa eta gero; PSNk, berriz, jarraitzea erabaki arren hasieratik garbi utzi zuen ez dagoela egungo legea aldatzearen alde. Badirudi, beraz, gobernua osatzen duen laukoteak duela legea aldatzeko giltza.

Hilabeteotan euskalgintzako hainbat eragile eta adituk parte hartu ostean, urriaren 3an eman zaio batzordearen ibilbideari amaiera Kontseiluaren ekarpenarekin: herritarrek zonifikazioaren ondorioak nola bizi dituzten jaso dute, eta euskararen lege berrirako proposamena ere aurkeztu dute. Orain, Batzordeak bere proposamena adostu, aurkeztu, eta parlamentuari egokituko litzaioke proposamen hori martxan jartzea edo zer egin erabakitzea. Askoren iritziz denbora aldetik oso justu baldin badabiltza ere, Kontseiluan uste dute benetako borondatea baldin badago legea aldatzeko aukera erreala egon badagoela.

Urriaren 27an, "Behingoz euskara ofiziala Nafarroa osoan" aldarri

Urrian zehar mobilizazioak antolatu ditu Kontseiluak Nafarroan, erabakigarria den une honetan parlamentuari eta gobernuari ausardiaz eta erantzunkizunez joka dezaten eskatzeko. Urriaren 27an manifestazio handia izanen da Iruñean: "Pertsona guztien arteko berdintasuna aldarrikatuko dugu, justizia eta ofizialtasuna", diote Kontseilutik.

Hiru zutabetatik abiatuko da manifestazioa, Nafarroako euskararen hiru eremuen sinbolo. Hiru zutabeak elkartu eginen dira gero, zonifikazioaren amaiera eta Nafarroa osorako ofizialtasuna irudikatuz. "Ofizialtasuna estatusa da. Gero, jakin badakigu ofizialtasunaren garapenak progresibotasuna beharko duela, malgutasuna. Baina oinarrizko legeak nafar guztiei eskubide berdinak aitortu behar dizkie", dio Bilbaok.

"Beti ari gara gobernuari eta administrazioko agintariei esaten hau edo hura egin dezaten, baina azkenean herri honetan lorpen handienak herritarrengandik etorri dira", dio Iriartek, Baztango herritarrak. Ildo berean hitz egin du Kontseiluko idazkari nagusiak ere. "Aldaketa etorri da Nafarroara, besteak beste, euskaratik ere aldaketa beharra zegoelako. Alegia, euskaldunok eta euskaltzaleok subjektu izan gara aldaketa horretan, guk ere ahalbidetu dugu. Baina guk aldaketa euskaratik eta euskaraz egin nahi dugu".

Zonifikazioaren aurpegiak

"GUREA ZORTE KONTUA DA, EZ ESKUBIDE KONTUA"

Susana Bidarte Andueza,
Lizarraldea

"Zonifikazioa, nire ustez, muga jartze bat da, eskubideen aldetik muga jartze bat, zentzugabekeria hutsa. Zergak berdin ordaindu behar ditugu, eskubide gehienak berdinak ditugu... baina bat -batean, hizkutza eskubideen alorrean dena aldatzen da.

Eguneroko bizitzan, bereziki administrazioan, ez duzu inongo eskubiderik. Eremu mistoan egonda ere, ni joaten naiz eskaeraren bat egitera eta papera euskaraz eskatzen dut, eta hori ere lortzea askotan ezinezkoa da. Zortea baduzu euskaldunen bat topa dezakezu, baina zorte kontua da, ez da eskubide kontua.

Lizarrako Udalean ere Nafarroako aldaketa bera eman da, eta sumatu da herrian euskararen presentzia areagotu dela, bisibilizazioa eman zaio. Baina aldaketa ez doa guk nahiko genukeen abiaduran. Gobernutik jarrera dena da "bai bai bai, egingo dugu", baina legealdia bukatzera doa eta egin egin... Ikusiko dugu, orain dute aukera benetan.

Gobernuari eta parlamentuari eskatuko nieke berdintasuna eremu guztietara eraman dezatela, berdintasunez trata gaitzatela euskaldun ala ez-euskaldun. Nik ez-euskaldunak dituzten eskubide berak izan nahi ditut. Askok inposizioaz hitz egiten dute. Inposizioa nori? Niri bai, niri inposatzen didate gaztelania bulego batera noan aldi oro. Nik ez dut inor behartuko euskaraz egitera, baina utz diezadatela euskaraz egiten askatasun osoz".

"IRUÑEKO KALEETAN MILAKA LAGUN BILTZEN BAGARA GURE AHOTSA ENTZUN BEHARKO DUTE"

Alizia Iribarren Andueza,
Tutera

"Zonifikazioa gure lurraldea hiru eremutan banatzen duen zentzurik gabeko zeozer da. Oker ez banago munduan dagoen toki bakarra da Nafarroa horrelako zerbait gertatzen dena. Ez da logikoa, nahiko surrealista da lurralde bateko biztanleak horrela sailkatzea hizkuntzari dagokionez.

Ni zonalde ez-euskaldun deitutako horretan bizi naiz, eta egunerokotasunean denean eragiten dit zonifikazioak. Zonifikazioak dio eremu honetan euskaraz ez dugula eskubiderik, zero eskubide dugula. Beraz, udalak ez du euskararen eskaintzarik egiten, eta gainera, guk ez daukagu eskatzeko eskubiderik ere.

Berdin du zenbat dekretu egin, zenbat aldaketatxo, zonalde batetik bestera herriak pasatzea... berdin du ez bada benetan lege hori bertan behera uzten edo aldatzen. Zonifikazioa desagerraraztea izango litzateke benetako aldaketa, hori egiten ez den bitartean gainontzekoa hankamotz gelditzen da.

Guk jarri ditugu toki horretan politikariak, printzipioz guretzat egin behar lukete lan, eta Iruñeko kaleetan urriaren 27an milaka lagun biltzen bagara, gure ahotsa entzun beharko dute.

“EREMU EUSKALDUNEAN BIZI NAIZ, ETA BIZITZA GUZTIAN IZAN DUT MEDIKU ERDALDUNA”

Elurre iriarte Bañez,
Baztan

“30 urtez iraun duen eta oraindik hor dirauen akatsa da zonifikazioa. Akatsa izan zen bere garaian lege hori sortu izana, baina ez aldatu izana ere akatsa da. Aukera izan zen lehenbiziko momentutik hartu behar zen kontu hau esku artean, nire ustez.

Eremu euskaldunean bizi naiz, baina Euskararen Legeak ez du kontratuen gainetik egiten. Mediku bati kontratu berri bat egiten diotenean, esaterako, ez zaio euskarazko profilik eskatzen. Nik bizitza osoan izan dut mediku erdalduna, eta hura jubilatu zenean etorri zen medikua kasualitatez zen euskalduna. Beraz, administrazioan euskaraz bizi baldin bazara kasualitatez da.

Errepideetako errotulazioak asko erdaraz daude, eta beraz, gure paisaia linguistikoa erdalduna da hein handi batean. Hezkuntzari begira ere, adibidez, semea Gipuzkoara joan behar izan da ikastera hemen euskaraz ez zeukalako eskaintzarik. Behin batxilergoa bukatuta Nafarroan arras eskaintza gutxi dago euskaraz, erkidegora joan behar duzu euskaraz ikasi nahi baduzu.

Lehendakaria euskalduna izatea ez da gutxi, orain arte Nafarroan izan dituzunekin alderatuta. Baina egia da gobernuaren aldetik ausardia falta sumatu dudala. Ausardia behar duzu izan sinesten duzun horretan aitzinera egiteko. Hori da kontua, ea benetan sinesten ote duten edo ez”.

“30 URTE BAINO GEHIAGO DIRA LEGEA EGIN ZENETIK ETA ORAIN ASKOZ JENDE GEHIAGOK BIZI NAHI DU EUSKARAZ”

Aurkene Isasi Salaberria, Sarriguren

“Zonifikazioaren ondorioz Iruñerrian etengabeko borrokan bizi behar dugu

hainbat egoeratan: Osasunbidean, hezkuntzan... Sarrigurenen, adibidez, urteetan borrokatu behar izan dugu D ereduko eskola lortzeko, eta lehenago haur eskolan ere nik ezin izan nuen alaba euskaraz matrikulatu aukerarik ez zegoelako. Urtetan etengabeko borroka izan da hezkuntzaren ikuspegitik.

Medikuarenera joatea ez da egoera erosoa izaten askotan, eta mediku edo pediatra euskaldun bat ere ez izatea oso bortitza egiten zait. Alabarekin medikura joan, bera etxean euskaraz bizita, eta medikuarenean erdaraz egin behar izatea...

30 urte baino gehiago dira lege hau egin zenetik eta asko aldatu da egoera ordutik: askoz ere haur gehiago ari dira D ereduan ikasten eta askoz jende gehiagok bizi nahi du euskaraz. Beti egongo dira kontrako jarrerak, baina ziur lehen jarri ditudan adibideetan gaur egun euskararena inposizioa dela dioten horiek ez dutela arazorik izan. Beraiek eskubide horiek bermatuak izan dituzte beti eta gu izan gara gutxietsiak. Beraz, bada garaia euskaraz bizi nahia betetzeko. Horrek ez du esan nahi besteek beraiena egiten jarraitzeko aukerarik izango ez dutenik”. ■

DATU PERTSONALEN BABESA
EUROPAKO ARAUTEGI BERRIA
Zure enpresa egokitzen
lagunduko dizugu
SIGACUS
✆ 943 453 588 · www.sigacus.com

BABESLEA: **LEZOKO UNIBERTSITATEKO UDALA**

EUSKARALDIA
EUSKARAK 365 EGUN
Lezo EUSKARALDIArekin
Izan ahobizi
edo belarriprest!
Lezoko Unibertsitateko Udala

Idoia Karrera eta Nerea Gomez, hezitzaileak

“Haurreskolak ezin du izan kontziliaziorako soluzio hutsa”

Irungo Iraun haurreskola publikoak hamargarren urteurrena ospatu du aurten eta urteotan bertatik pasa diren 200 familiatik gora, 700 bat lagun, hurbildu dira festara. Etapa berezia da 0-3 urte bitartekoa eta hezitzaileen eta familien artean sortzen den harremana ere ez da edonolakoa. Eguneroko jardunera itzuli direnean gerturatu gara gu, eta zaintzaz, ziklo honen oinarriez, umeak estimulatzeaz, haurreskolako lanari ematen zaion balioaz... hitz egin dugu Idoia Karrera Etxebeste eta Nerea Gomez Pombar hezitzaileekin.

Mikel Garcia Idiakez
@mikelgi

Lantalde finkoa duzue, abantaila da hori.

Nerea Gomez: Egonkortasuna ematen digu, taldean funtzionatu ahal izateko, ez goaz nor bere kontura. Uneotan bederatzi hezitzaile finko eta hiru ordezko gaude.

Idoia Karrera: Elkarrekin birpentsatzen ditugu egiteko moduak eta zergatiak, eta urtero dugun 100 orduko formakuntza ere horretarako baliatzen dugu. Bi urtez aritu ginen familiekiko harremana eta konfiantza lantzen, espazioaren garrantzia ere jorratu dugu, erabiltzen dugun materiala, zaintzaren esparru ezberdinak...

Hezitzaileez gain, lantaldea jangelako laguntzaile batek eta bi garbitzailek ere osatzen dugu. Saiatzen gara lan hori ikusarazten, familiei adierazten, askotan lan ezkutua delako, gu iristen garenerako dena garbi baitago, baina hori hala izan dadin, guk eraikina utzi dugunean beste batzuk sartu dira lanera.

Haurreskola publikoa zarete. Guztien publifikazioa eta doakotasuna sindikatuen aspaldiko aldarrikapena da, haurra matrikulatzeko aukera denen eskura izan dadin.

Karrera: 18.000 eurotik beherako errenta duten etxeetan haurreskola doakoa izatea planteatu zuen Jaurlaritzak, baina airean dago hori. Batetik, errealitatea da familia batzuek ezin dutela zerbitzu hau ordaindu, eta bestetik, publifikazioa izango litzateke ziklo honen aitortza.

Gomez: Izan ere, 6 urtera arte ez da derrigorrezkoa haurra eskolaratzea, baina 3-6 adinak eskolatzea bermatua duen bitartean, 0-3ren errealitatea beste bat da eta garestiak dira matrikulak.

Kontrara, hain juxtu baliabideak dituenak batzuetan aukeratzen du umea adin tarte horretan etxean heztea. Zaintzaren paradigma horretan, nola ulertzen duzue haurreskolaren funtzioa?

Karrera: Haurreskolak ezin du izan kontziliaziorako soluzio hutsa, soluzioak integralagoa behar du, aldaketak gizarte mailan eman behar dira, lan mundutik hasita, bakoitzak aukera izan dezan erabakitzeko nola nahi duen umea hezi hasierako urte horietan. Gainera, haurrak adibidez gaixotu egiten dira, eta familiak haurreskolatik harago “B plana” behar izaten du beti. Badira familiak umeak hona ekartzen dituztenak lanean ari direlako, baina baita ere haurrak etxean heztea erabaki dutenak eta ordu batzuez haurreskolan utzi nahi dituztenak. Haurreskolen funtzioa ez delako asistentziala, hezitzailea baizik, eta familia askok horretan sinesten dute.

Gomez: Umeak adin batetik aurrera beharra du beste ume batzuekin egoteko, eta behar hori asetzeko modu bat izan daiteke haurreskola. Familia batzuek babesa ere aurkitzen dute gugan, komunitate bat, beharbada agobiatuta daudelako... Aldi berean, horrek ez du esan nahi etxean hezteko aukera zilegi ez denik.

Karrera: Abiapuntua da familia bakoitzak bere haurrarentzat onena nahi duela. Eta familia batek pentsatzen badu etxean heztea dela bere umearentzat onena, aurrera. Eta beste familia batek bestelako gogoeta bat egin duelako, edo beste errealitate bat bizi duelako, haurreskolaren hautua egin badu, horretarako aukera izan dezala.

Haurreskolak, beraz, ez dira ulertu behar kontziliatzeko soluzio huts gisa, baina nola bizi du jendeak? Zuek 7:30etik 17:00etara duzue zabalik haurreskola.

Karrera: Zentroaren ordutegia hori da, baina haurra gehienez zortzi orduz egon daiteke bertan, hala dio legeak. Zortzi ordu asko diren? Lehengora noa: epaitu beharrean, pentsatu behar dugu familia guztiek egiten dutela euren haurrentzat onena dela uste dutena, eta zuretzat onena izan daiteke etxean haurrari ezer falta ez dakion zuk lan egitea eta umea haurreskolan uztea, zure lanpostuak ez dizulako kontziliaziorako inongo aukerarik ematen, edo ez duzulako zaintza sarerik inguruan...

Nerea Gomez Pombar (ezkerrean) eta Idoia Karrera Etxebeste. EAEn 0-3 zikloa hautsi eta 0-2 bihurtu dutela kritikatu dute. "Zikloa borobiltzeko aukera moztu digute".

Gomez: Edo nahiz eta enplegurik ez izan agian behar duzu ordu batzuez umea haurreskolan utzi eta denbora hartu, ideiak egituratu, gero umea berriz hartzen duzunean kalitatezko denbora eskaintzeko. Familia bakoitzak du bere motxila, bakoitzaren errealitatea oso ezberdina da eta aintzat hartu behar dugu, "hori bai alferra" kritikatzen hasi aurretik. Gurasotasuna ez da kontu samurra.

Zein lehentasun dituzue haurreskolan?

Karrera: Haurrak berezko gaitasuna du gauzak ikasteko, eta gaitasun hori ahalbidetzeko hiru arlotan jartzen dugu indarra: segurtasun afektiboa (seguru sentitu dadila haurra, gurekiko atxikimendua izan dezala…), espazioa (garbia, segurua, goxoa, atsegina, argi naturalarekin, kanpoko espazioarekin harremanean…), eta materiala (haurraren une bakoitzarentzat aproposa, garai batekoa baino soilagoa eta naturalagoa…)

Gomez: Urte askoan joera izan da umeari guztian laguntzea ("ibiltzen hasteko adina du jada, bada hartu eta ibiltzen jarriko dut"), baina egiten uztea da gure oinarria, umea ez bideratzea, beragan sinesten dugulako eta bere erritmoak errespetatzen ditugulako. Gustura eta seguru sentitzen bada, egingo du aurrera. Gure lana da ondoan egotea, eta behaketaren bidez testuingurua egokitzen joatea (material batek ez diola ongi egiten ikusten badugu, beste bat jarriko diogu eskura). Sarri hizkuntza oraindik ez dute garatua eta gertatzen zaienari, sentimenduei, emozioei hitzak jartzen ere laguntzen diegu.

Egiten uzten diezue. Zenbait haurreskolatan aldiz, estimulazio goiztiarra dago modan.

Karrera: Guk argi dugu aurreratzeagatik edo lehenago egiteagatik haurrak ez duela garapen oparoagoa izango. Testuinguru egokian, prest dagoenean etapa bakoitza gainditzen joango da haurra eta autoestimua ere berak bere kabuz lortuko du, saiakera-akatsa prozesuaren bidez.

Hainbat etxetan ordea, badago nahi bat txiki-txikitatik has dadin haurra edukiak barneratzen eta ikasten.

Karrera: Guk familiei esaten diegu guk zergatik eta nola egiten ditugun gauzak, profesional moduan zein den gure iritzia eta jarduna. Batzuek gure funtzionamenduarekin bat egiten dute eta beste batzuek bestela jokatzen dute, eta guztiekin elkar ulertzen eta moldatzen saiatzen gara, haserretzearekin ez baitugu ezer lortuko. Dena den, esango nuke gainestimulaziorako joerak behera egin duela. Garai batean bazirudien umeari estimulu pila bat eman ezean ez zuela lortuko bere garapen optimoa, eta gutxinaka baretzen ari da pentsamolde hori, haurraren ongizatea jarri da zentroan.

Familia ereduak aldatu dira urteotan?

Gomez: Gurasoek gero eta informazio gehiago dutela ikusten dut nik. Batzuk kasik adituak dira eta gure erabakiak hobeto ulertzen dituzte, edo zalantzan jartzen dituzte erabaki horiek…

Karrera: Guraso bakarrak, banandutakoak, jatorri atzerritarrekoak, sexu berekoak, gurasoez gaindiko egiturak… Aniztasun hori ere nabariagoa da. "Guraso" hitza adibidez desagertu egin da gure oharretatik, "familia" erabiltzen dugu orain, eredu anitzagoak hartzen dituelako bere baitan.

Adin honetan umeek dena xurgatzen dutela esan ohi da, munduaren ikusmoldea ere hasten dira osatzen, eta zuek erreferente inportantea zarete bide horretan.

Gomez: Ikastaroek asko lagundu digute gure jardunaren kontzientzia hartzen.

Karrera: Gure keinu bakoitza pentsatuta dago. Arrazoi batengatik hitz eta jokatzen dugu modu jakin batean. Lehen familia bileretan esaten genuen: "5 neska eta 7 mutil ditugu". Jada ez dugu halakorik egiten, generoa aipatzea hutsala iruditzen zaigu, eta umeekin ere saiatzen gara genero bereizketarik ez egiten.

» “Familia bakoitzak du bere motxila, bakoitzaren errealitaea oso ezberdina da eta aintzat hartu behar dugu”

» “Garai batean bazirudien umeari estimulu pila bat eman ezean ez zuela lortuko bere garapen optimoa, baina gutxinaka haurraren ongizatea jarri da zentroan”

» “Ez gaude doktrina baten menpe. Teorietatik ongi datorkiguna hartzen dugu, aurten funtzionatu didanak hurrengo haur taldearekin agian ez baitit balioko”

» “Etapa honen prestigio faltak badu zerikusia zaintzari ematen zaion balioarekin. Guretzat aldiz, zaintza oso kontzeptu polita da. Ba al dago zaintza baino gauza inportanteagorik, norbere buruarena eta elkarren artekoa?”

Berrikuntzarako eta esperimentatzeko aukera ematen duen etapa da zuena.

Gomez: Etengabe egiten dugu: gure jarduna berrikusten eta birplanteatzen dugu, formakuntzari esker eta lantalde gisa.

Karrera: Haurrak oso irekita daude gauza berrietara eta egia da ikuspegi hezitzailetik adin hauei hobeto nola erantzun jorratzen duten lan gero eta gehiago daudela. Orain arte, izan ere, eta gizakiaren garapenean oso etapa inportantea dela aitortzen den arren, ikerketa gutxi egon da 0-3ari buruz.

Formakuntzako teoria ala ikasgelako praktika, zer gailentzen da egunerokoan?

Karrera: Formakuntzak balio digu adituek zer dioten entzuteko eta gero guk erabakitzeko horretatik zer egiten dugun gure, teoria batzuek balioko digutelako eta beste batzuek ez. Guk aldarrikatzen dugu teoriak bat egin behar duela gurekin, sinetsi egin behar dugula egiten dugun horretan. Egiten duguna egiten dugu horretan sinesten dugulako, ez teoria batek dioelako. Eta denaren oinarrian, jakina, sen ona.

Gomez: Aldarrikatzen dugu ez gaudela doktrina baten menpe. Ez gara Pikler eskola, ez Montessori eskola… baina teoria horietatik ongi datorkiguna hartzen dugu. Haur talde bakoitza oso ezberdina da eta horrek ere eragiten du, aurten talde honekin funtzionatu didanak agian ez baitit balioko datorren ikasturteko taldearekin.

Ratioek ere eragingo dute, alegia hezitzaile bakoitzeko zenbat haur dauden.

Gomez: Haurreskolak Partzuergoak finkatua du hezitzaile bat eta erdi behar direla zortzi umerentzat 0-1 etapan, eta hezitzaile bat eta erdi hamahiru umerentzat 1-2 etapan. Normalean bat eta erdi beharrean, ratioa izan ohi da bi hezitzaile; guk hala dugu eta binaka egiten dugu lan. Umeak oso txikiak dira eta arreta pertsonalizatua behar dute; badago zer hobetu ratioetan.

0-3 etapaz ari gara, baina egiatan 0-2 hartzen du haurreskolak.

Karrera: EAE da Espainiako Estatuan 0-3 zikloa hautsi duen erkidego bakarretakoa. Duela bizpahiru urte kendu ziguten 2-3 urteko gela (hala sentitzen dugu, kendu egin zigutela) eta ikastetxeek hartu zuten euren gain adin hori. Zentzu pedagogikorik ez daukan erabaki politikoa izan da, ziurrenik ikastetxe pribatuak hasi zirelako 2-3 urteko gelak berenganatzen eta joera horri erantzuteko, baina ez da aintzat hartu 0-3 zikloa bere osotasunean.

Gomez: Ikastetxerako saltoa bortitza egiten zaie ume eta familia askori, horrela adierazten digute urtero. Eskola eta patio handi batera egiten dute jauzi, irakasle bakarrarekin, familiek ere ez dituzte ateak hemen bezain irekiak…

Karrera: 0-3 oso etapa espezifikoa da, beste modu batera egiten dugu lan, eta horren isla da irakaskuntzan ez dutela 2 urteko gela nahi izaten, 3 urteko gelan egiten dutena egin nahi dutelako 2 urteko gelan, eta hori ezin da. Guri berriz, zikloa borobiltzeko aukera moztu digute. Inor ez dago erabakiarekin gustura eta iaz familiek sinadurak bildu zituzten, 2 urteko gelak haurreskolan mantentzeko.

0-3 adinaren garrantzia aitortua dago. Aitortza bera du zuen lanak?

Gomez: Nik oraindik entzun behar izaten dut, batzuetan: “Zer moduz gaur lanean, zer egin duzu, txalo-txalo eta fardelak aldatu?”. Baina gero eta kontzientzia handiagoa duen jendea ere badago. Guk sinesten dugu 0-3 adina funtsezkoa dela eta hor finkatzen diren oinarriek bizitza guztirako eragiten dutela. Eta ondorioz, gure lana inportantea dela.

Karrera: Langile bezala, mobilizatzen garen ziklo bat gara, ziurrenik txiki-txiki sentiarazten gaituztelako eta guk sinesten dugulako beste zerbait merezi dugula. Joan den ikasturteko negoziaketen ondorioz lortu zen, besteak beste, ordezkapenak areagotzea, koordinaziorako ordu gehiago, eta 0-2 adinekoekin lan egiten dugunok ere Hezkuntzako zerrendetan puntuatzea: aitortzaren bidean aurrerapauso handia da hori, orain arte kontuan ere ez baikintuzten hartzen Hezkuntza zerrendetan!

Zuen lantaldean emakumeak zarete denak. Sektore feminizatua izateak zerikusia izan dezake etapa honen prestigio faltarekin?

Karrera: Izan daiteke, eta esango nuke zerikusia duela baita ere zaintzarekin eta zaintzari ematen zaion balioarekin. Guretzat aldiz, zaintza oso kontzeptu polita da, eta garai batean gure buruari “haurtzaindegi” deitzeak konplexua sortzen bazigun ere, orain iruditzen zaigu hitz ederra dela. Guk haurra bere osotasunean zaintzen dugu, dituen behar guztiak aintzat hartuz: oinarrizkoak, afektiboak, garapen arlokoak… Ba al dago zaintza baino gauza inportanteagorik, norbere buruarengandik hasi eta elkarren arteko zaintzaraino? ■

RUBEN COLLIO *ekintzaile maputxea*

“Macarena lurraren defentsan borroka egiteagatik hil duten lehenengo emakume maputxea da”

Amaia Lekunberri Ansola
@amaialekunberri

Ruben Collio maputxeak (Santiago, Txile, 1976) itsasoa zeharkatu du Macarena Valdés ekintzailearen hilketaz jakinarazi eta nazioartean babesa lortzeko, salatzen duenez Txileko Estatuaren baitan maputxeentzat justiziarik ez baitago. 32 urte zituela hil zuten Valdés Tranguileko bere etxean, beraien bizilekuan zentral elektrikoa eraiki duen RP Global enpresa transnazional austriarraren auto batetik mehatxatuak izan eta egun batera. Macarenaren bikotekidea zen Ruben Collio, eta justizia bila dihardu.

Macarenaren hilketa ez da maputxe herriaren kontrako lehen erasoa. Aspalditik datorren gatazka da. Zertan datza?

Txileko Estatuak Herri Maputxearekin duen gatazka da, ez maputxeona. Gatazka ekonomikoa da, behin independentzia lortuta Txileko Estatuari sortzen zaion anbiziotik datorrena. 140 urte dituen gatazka da.

Araukaniako okupazioan, jaioberria zen Txileko Estatuak beretzat hartu zuen maputxe herriaren Biobio eskualdeko hegoaldearen aberastasun handia, lurrak inbadituz. Sinatua zuen Tapihueko ituna haustea erabaki zuen, zeinetan Txileko Estatuak Nazio Maputxea nazio libre eta burujabe gisa onartzen duen, eta senidetutako nazio bezala haztea proposatu. Herri Maputxeak abantaila gehiegi zituela eta lur emankorregian bizi zela ondorioztatuta, lurrok okupatzea erabaki zuten. Helburu horrekin intentsitate baxuko guda bati hasiera eman zioten. Inbaditu eta hiltzen gaituzte. Gaur egunean, gudak hortxe dirau.

Pinocheten diktaduraren ostean, baliabide naturalen erauzketa masiboan ardaztu da Txileko ekonomia, eta horretan jarduten duten enpresek estatuaren babesa dute. Egoera hori izanik, enpresok parean jartzen zaien edozeinen aurrean indarrez egiten dute aurrera.

Macarena bakarrik ez, jende andana hil dute testuinguru berberean. Gertatzen dena zera da, Macarena lurraren defentsan borroka egiteagatik hil duten lehenengo emakume maputxea dela. Gizonezkoak kriminalizatu eta hil badituzte ere, ohartu dira herri maputxearen indarra emakumeengan dagoela, orain artean horregatik eutsi diotela gatazkari maputxeek. Hala bada, estrategia aldatu dute. Zoritxarrez, estrategia aldaketa hori gurekin egin dute, eta nire bikotekidea hil.

RP Global enpresako auto bat mehatxu egitera joan zitzaizuen eta biharamunean, 2016ko abuztuaren 22an, Macarena etxeko sabaitik urkatuta, hilda agertu zen. Suizidiotzat jo zuten heriotza, baina Macarena ezagutzen zenutenoi zaila zitzaizuen bere buruaz beste egin izana sinestea.

Begira, *La Negra*k –berak hala deitzen dio Macarenari– energia ikaragarria zeukan. Hainbesteko energia daukan pertsona batek bere buruaz beste egin dezakeela pentsatzea zaila da. Hil zuten egunean osasun zentrora doan autobusa hartzekoa zen. Aurretik, haurra bainatu, arropaz eta pixoihalez aldatu eta bazkaria egin zuen. Bere buruaz beste egitea pentsatzen ari den zein pertsonak egiten dio bazkaria bere familiari. Etxera heldu nintzenean janaria eta bere poltsa, semearen mediku txartelarekin batera, mahai gainean ziren. Hil nahi duen pertsona batek ez du etorkizunera begirako planik egiten. Bera emakume zoriontsua zen, ez zuen bere buruaz beste egiteko asmorik.

> "Ohartu dira herri maputxearen indarra emakumeengan dagoela, orain artean horregatik eutsi diotela gatazkari maputxeek"

> "Azterketak Macarena urkatu zutenerako hilda zegoela frogatu zuen"

> "Txileko Estatuak Herri Maputxearekin duen gatazka da, ez maputxeona"

Macarena hilda agertu eta biharamunean, enpresako langileak zentral hidroelektrikoaren kableatua instalatu asmoz azaldu ziren.

Abuztuaren 23an kableak jartzen ari zirela esanez deitu zidaten, eta segidan dei egin nuen nik herrizaintzara, kableak jarriko ez zituztela esanez. Konpromiso politikoa hartua zeukatela adierazi nien, enpresa legez kanpoko jardunean ari zela frogatu eta salaketa jarria geneukalako. Herrizaintzatik ezin zutela ezer egin erantzun zidaten, eta nik hurrengoa adierazi nien: "Bart nire bikotekidea hil zuten eta gaur kableatuaren kontra dagoen maputxe asko ari dira gerturatzen. Hemen zerbait larriagoa gerta daiteke. Erretiratzeko eskatu edo hildako gehiago izan dezakegu". Herrizaintzak, arazoaren muntaz jabetuta, karabineroei dei egin zien alde egiteko eskatuz, eta poliziak eta teknikariak kableatua egin barik joan ziren. Baina irailaren 9an nire kontrako prozesu bat hasi zuten, kamioi bati su emango niola mehatxu egin nuela aitzakia gisa erabiliz. Horretaz baliatu ziren urrian Poliziaren indar bereziekin –Polizia paramilitarra– kable instalazioa indarrez egiteko.

Gertakariok Macarenaren heriotzarekin lotura zutenaren susmoa indarra hartuz joan zen, eta gorpua hobitik ateratzea erabaki zenuten, baldintza egokietan heriotza zerk eragin zuen aztertzeko.

2016ko urrian, guztia elkarloturik dagoela ulertuta, Macarenaren heriotzagatik kereila kriminala jarri genuen. Kereilak bi urteko epea zeukan ikertua izateko, baina 2017ko martxoan ikerketa itxi egingo zutela esanez dei egin ziguten. Egun horretan manifestaziora deitu genuen jendeak lagunduta auzitegira joateko, eta ikerketa zabalik mantentzea lortu genuen, baldintza batekin: gorpua hobitik ateratzeko perituak geuk ordaintzea. Dirua biltzeari ekin genion, eta bost hilabeteren buruan peritu bat ordaintzeko beste geneukan. 2017ko abuztuaren 9an, perituaren informea aurkeztera gindoazela, berriz aurkitu genuen ikerketa itxita. Bi urteko epea zeukan ikerketa bi aldiz itxi zuten urtebete igaro aurretik.

Fiskaltza erregionalera jo genuen orduan. Lehenengo autopsia ofiziala gaizki egin zela frogatzen zuen perituaren informea hain zen sendoa, ezen ikerketa zabaldu behar izan zuten berriz. Irailaren 25ean ezarri zen gorpua hilobitik ateratzeko data, eta eragozpenekin bada ere hala egin zen. Urriaren 30ean lortu zen autopsia egitea, eta laginaren ale bi gorde genituen: bata Estatuko auzitegi-medikuek aztertzeko, eta bestea laborategi pribatu batera eramateko. Laborategi pribatuan egindako azterketaren emaitza 2018ko urtarrilean jaso genuen, eta horrek Macarena urkatu zutenerako hilda zegoela frogatu zuen. Zintzilikatu egin zuten, hildako bat ezin baita bere kabuz zintzilikatu. Beraz norbaitek jarri zuen hor, norbait han zen hil zenean. Hilketa izan zen.

Orduan ikerketa aldatzea eskatu genuen, suizidioa baino hilketa kalifikatu

Macarena Valdes oroitu eta RP Global enpresa transnazionalak hil zuela salatzen duen murala.

bat iker zezaten. Kalifikatua, ez delako hilketa sinplea, lehenengo hil egin baitzuten eta ondoren hilketa estaltzen saiatu, auzitegi-medikuari dirua eskainiz lehen autopsia faltsua sinatzeko. Fiskaltzak ikerketaren norabidea ezin zuela aldatu erantzun zigun, horretarako froga nahikorik ez zegoela argudiatuz, nahiz eta guk urtarrilean adituaren txostena aurkeztu. Hori gutxi balitz, auzitegi-medikuek aztertu beharreko bigarren autopsiako lagina laborategira bidali aurretik, gure perituaren prozeduraren gaineko analisi kritiko bat egiteko eskatu zion mediku bati, gure peritua zalantzan jarriz. Ez dute nahi beraien eskutan dagoen autopsiaren lagina laborategira eraman, jakin badakitelako guk jasotako emaitza berbera jasoko dutela, lagina laborategira eramanez gero Macarena hil egin zutela onartu eta gertakaria ikertu beharko dutela. Hilketa ezkutatzen saiatu zirenak agerian geratuko liratekeelako. Lehen autopsia egin zuen medikua kasu, zeinak aurretik ere sinatu zituen beste bi autopsia faltsu, hilketa zena suizidiotzat joz.

Epaiketa zabalik dago momentu honetan, baina irregulartasun guzti hauekin. Horregatik erabaki dugu nazioarteko babesaren bila ateratzea.

Pinocheten diktadurak iraun bitartean maputxe ugarik lurraldetik alde egin zuen, baita izenez aldatu ere, bortxaren eta baztertuak izaten jarraitzearen beldur. Macarena eta zu Santiagon bizi zineten, eta hiria utzi eta komunitate maputxera bizitzera joatea erabaki zenuten. Deserrotu zen belaunaldi haren ondorengoa berriz erroak botatzeko bidea hartzen dabil?

Gero eta gazte maputxe gehiagok erabakitzen du lur maputxeetara bueltatzea, maputxe bezala bizitzera itzultzea. Lurrak deitu egiten dizu, saihetsezina den zerbait da, guk ez genuen nahi zementuzko oihanean bizi, hiriak intoxikaturik gintuen. Jendea estresatuta bizi da, estututa, alde batetik bestera korrika, oso haserre. Izatez ez dira bizi, biziraun egiten dute hirian, dirua lortzeko saiakeran. Zeren dena neurtzen da diruaren arabera, eta zenbat eta diru gehiago izan orduan eta erosteko ahalmen handiagoa daukazu, eta zenbat eta gehiago erosi zoriontsuagoa eta arrakastatsuagoa zara. Jendeak urteko 365 egunetatik 350 lanean igarotzen ditu, esklabuak bezala, pareta bati begira, ordenagailuko pantailara iltzaturik, gaizki tratatzen dituen nagusi bat jasaten. Urteko 350 egun horrela lanean, dirua batu eta hamabost egunez zoriontsu izan ahal izateko. Eta hamabost egun horietan gu urteko 365 egunez bizi garen tokira etortzea erabakitzen dute. Hala bada, gu oporretan bizi ginen, horrela ulertzen genuen. Bizi garen tokira jendea arnasa hartzera etortzen da, zoriontsu izatera. Horregatik gure lau semeak, Macarena eta seiok zoriontsu bizi ginen. Baina bizitza zikintzera etorri zitzaizkigun. ■

Jarraian datozen argazkien bidez amazigh herriaren haran ahaztuetan barrena bidaiatuko dugu. Afrika iparraldean, hainbat estatutan zatitua, Atlas mendien hegian, belaze garaietan, artzain bide malkarretan, ibai eta ur-jauziak zeharkatuz, jende abegikor hauekin denboran galduko gara.

Argazki erreportajea: Dani Blanco

AMAZIGH herriaren oloreak







AZKEN(AURREKO) **GIZA ZOOA**

Nagore Irazustabarrena Uranga
@irazustabarrena

Belgikan antolatutako bi giza zoo: ezkerrean, 1897koa Tervurenen; eskuinean, 1958koa, Bruselan.
INFORCONGO / RMCA

Brusela, 1958ko urriaren 19a. Hiri horretan apirilaz geroztik egindako erakusketa unibertsala amaitu zen. Ikuskizun eta pabilioi gehienek ateak itxi zituzten. Atomium eraikina, Expo 58 horretarako berariaz egina, hantxe geratuko zen. Erakusketaren beste atal bat, ordea, uztailean itxi behar izan zuten.

Atomiumen gerizpean Kongorama jarri zuten, Afrikako kolonia belgikarreko meatzaritza, artea, garraioa eta nekazaritzari buruzko zortzi hektarea eta zazpi pabiloiko erakusketa. Hiru hektareatan, banbuzko hesiz inguratuta, Kongoko herrixka "tipikoa" eraiki zuten, lastozko txabolak eta guzti. Eta Kongotik bertatik ekarritako 183 familia –598 pertsona, nagusiki beren ohiko zereginetan jarduten zuten artista eta artisauak– ere ikusgai jarri zituzten. Hesiaren bestaldean, zuriek nagusitasunez begiratzen zieten kongoarrei, gutxi batzuek jakin minez, gehienek erdeinuz eta iseka eginez. Garaiko kazetari baten hitzetan, kongoarrek "ez bazuten erreakzionatzen, ikusleek dirua eta bananak botatzen zizkieten banbu kanaberen artetik".

Egunez jasan behar zuten tratu txarraz gain, kongoarrak kexu ziren gauez etxe txikiegietan pilatzen zituztelako eta ez zutelako handik irten eta sartzeko askatasunik. Uztailean, nazkatuta, gehienak etxera itzultzea erebaki zuten eta "giza zooa" –kongoarrek hala esaten zioten– bertan behera geratu zen. Europarrek nahiago zuten politikoki zuzenagoa zen izen bat erabili: "Erakusketa etnologikoa".

Eufemismoak eufemismo, ez zen hura horrelako zerbait antolatzen zuten lehen aldia. XX. mende hasieran, Londres, Paris, Oslo eta Hanburgon aldizkako giza zooak antolatu zituzten. 1906an Kongotik hortzak zorroztuta zituen gazte bat bahitu zuten eta Bronxeko (New York) zooko tximinoen kaiolan jarri zuten ikusgai...

Belgikan bertan, 1897ko udan, Leopold II.a erregeak 267 "kongoar" inportatu eta Tervurengo jauregian ipini zituen. 1,3 milioi belgikarrek bisitatu zuten erakusketa –orduan Belgikak 4 milioi biztanle zituen–. Uda hotza izan zen hura Belgikan, eta zazpi kongoar hil ziren pneumoniak eta gripeak jota; gorpuak hobi komun batera bota zituzten. Baina ikuskizunaren "arrakasta" ikusita, erakusketa iraunkorra bihurtzea erabaki zuten.

Beraz, Expo 58koa ez zen lehen giza zooa izan. Eta azkena? Aurtengo apirilean *The Guardian* egunkariko Bruselako bulegoko buru Daniel Boffeyk artikulua idatzi zuen gai honi buruz, Bruselako erakusketaren inaugurazioaren 60. urteurrena aitzakia hartuta. Hauxe zioen pasarte batean: "1959ko urtarrilean Kongok independentzia lortu zuen, eta horrelako zoorik ez zen berriro sekula paratuko munduko inongo lekutan".

1994ko apirilean, Boli Kostako herrixka bat "eraman" zuten Port-Sain-Pèrera (Nantes, Frantzia), gerora Planète Sauvage izango zen gunera. 2005eko uztailean ere afrikar herrixka bat irudikatu zuten, biztanle eta guzti, Augsburgeko zooan, Alemanian, kultura eta artisautza jaialdi baten karietara. Eta 2007an Brazzavillen (Kongon) Fespam musika jaialdian jo behar zuten musikari pigmeoei hiriko zooan eman zieten ostatu. Ofizialki ez zen erakusketa bat, baina turistak haiei begira eta argazkiak ateratzen jardun zuten, zenbaitentzat azken giza zooa duela 60 urte itxi bazuten ere. ■

MEXIKOKO LIBURUTEGI NAZIONALA

Urdinak egiaztatutako kodexa

Mexikoko Kodex Maia –lehen Grolier Kodexa deitua, lehenengoz New Yorkeko Grolier Klubean erakutsi zutelako– benetakoa dela egiaztatu berri dute. Duela 40 bat urte aurkitu zutenetik zalantzan jarri zuten egiazkoa ote zen. Papera radiokarbonoz aztertu zutenetik bazekiten euskarria 1021-1154 urteen artekoa zela, baina irudiak haren gainean XX. mendean faltsifikatu zituztela uste zuten. Orain erabilitako pigmentuak aztertu eta urdin kolorerako paligorskita minerala erabili zutela ondorioztatu dute. XVII. mendean utzi zioten substantzia hori erabiltzeari eta, hala egiaztatu dute kodexa XI. edo XII. mendekoa dela eta, horrenbestez, orain arte Amerikan aurkitu den eskuizkribu irakurgarri zaharrena. ■

Baratxuriak itsasoa du maite

Jakoba Errekondo
jakoba@bizibaratzea.eus
ARGAZKIA: LOTTE BJARKE

Baratxuriaren sasoia hemen da. Baratxuria ereiteko sasoia. Bere uztarena geroago izango da, eta hura buruan ekin behar lanari. Burua buruan, baratxuriarena zeurean. Baina denok ez dugu baratxuriaren burua helburu. Gero eta maizago ikusten da baratzeetan berdetarako ereindako baratxuria. Baratzeetan eta lorontzietan ere bai. Baratzegintzari ekiteko landare errazenetakoa da baratxuria. Terrazan, balkoian, leiho-koskan ontzi ttiki bat nahikoa da; baratxuri burua oso ososrik hartu eta lurpean sartu, doi-doi lurrez estalita. Laster ikusiko duzu buruko ale bakoitzetik sortuko den kimua. Kimu horiek hosto luze-luzeak bihurtuko dira, eta, berde-berde eta guri-guri daudenean, buru osoa lurretik atera, garbi-garbi egin eta zartagira. Etxeko baratxuri berriak.

Udazkenean sartu ordurako ereiten hasi eta udaberrira arte ilbehera oro buru batzuk erein; gero, etorri ahala, txandaka-txandaka jateko. Negua eta udaberria gozatuko digun gutizia da. Hotza eta eguzkia gustatzen zaizkio; hotzak erroarazten du, eta, zenbat eta eguzki gehiago, baratxuri hobea. Sustraiak lehorrean izatea atsegin du: lur harroan edo ildo-bizkarrean eta ontzian badago, azpiko platera kenduta, gehiegizko urak erraz alde egin dezan. Baratxuriak itsasoa ere maite du, eta hango arrainen edota gorbelen hondakinak beretzako ongarri aproposak dira; baita errautsa ere. Lurra harrotuko dute, eta landaretxoak behar dituen elikagaiak eman. Batez ere dasta eta lurrin finak erantsiko dizkioten elikagaiak. Garai batean arrain eta gorbel ongarria ohikoa zen portu inguruetako soro eta baratzeetan. Egun batzuetako kiratsa gorabehera, dasta ederreko uztak jasotzen ziren.

Dendan eskuratu dezakezun ez dakit nondik ekarritako, ez dakit zenbat eskutatik igarotako baratxuri zakar garratzaren aldean, etxean egindakoa, bildu berritan jandakoa ustekabeko agerkundea da, bikaina: fina, konplexua, berde eta fruitu lurrinekoa...

Bueltan datoz ongarri naturalak eta horien artean gorbelekin egindakoak boladan dira, indartsu. Berriz ere entzungo da: “baratxuria baino finagoa” edo “baratxuria baino zindoagoa”. ■

GENTIANA PROIEKTUA

Ingurumenari lotuta Pirinioetan lan eta bizi

Garazi Zabaleta
@tirikitrann

Pirinioetan ohikoa den landare berezia da *gentiana*, euskaraz gentziana edo errosta. Abiatu zuen proiektuari izen hori jarri zion Silvia Erlanz Roda biologoak: "Ingurumenaren kudeaketan eta heziketan jarduteari ekin nion". Azken aldian ingurumenaren kudeaketan zentratu da batez ere Erlanzen lana. Pirinioetako espezieen jarraipenak, flora eta faunaren inbentarioak edota mendi-bideen inguruko lanketak egiten dituzte Gentianan, besteak beste. "Aquila LIFE proiektu europarra ere badaukagu esku artean, Bonelli arranoaren kontserbazio proiektua da". Azken urteetan Erronkariko hartz arrearen inguruan ere egin dute lan, artaldeak erasotzen dituen inguruetan zaintza lanak eginez.

Gentiana proiektua 2013 inguruan sortu zuen eta Erlanz da enpresako kide bakarra. Azken aldian, ordea, Janet Torrea eta Itziar Almarcegui biologoekin elkarlanean dabil. Aberasgarria dela dio.

Ingurumen heziketa eta ezti ekoizpena

Gaur egun kudeaketari lotutako lanak gehiago izan arren, ingurumen heziketaren alorra ez du alde batera utzi nahi izan Gentianak. Inguruko faunaren eta floraren interpretazio tailerrak antolatzen dituzte, esaterako, eta baita landareen ingurukoak ere. "Sendabelarrei buruzko tailerrak egiten ditugu haien erabilera ikasteko, hegaztien eta gainerako animalien behaketak antolatzen ditugu...". Egun martxan dute Salazar ibaiaren eta almadien inguruko tailerra. Herritarrengandik erantzun oso ona jasotzen dutela dio.

Eztia ekoizten ere badabil Erlanz: "Ez da ekoizpen oso handia, baina eztia, propoleoa eta xaboi eta ezpainetako baltsamoak egiten ditut", dio. Eskaera egon badagoela eta, aurrera begira produktuok lantzeko gunea martxan jartzea du buruan. Proiektu txiki ezberdinek osatzen dute Gentiana, baina badute guztiek zerbait amankomunean: Pirinioetan kokatzea, eta ingurumenarekin lotura izatea. Proiektua martxan jartzean Erlanzek bilatzen zuena, hain zuzen. ■

azoka

NOLA SALDU GAUZAK AZOKAN: Sartu argia.eus/azoka helbidean, eta klikatu "Saldu" botoia. Bost minutuan jar daiteke edozer salgai Interneten, denen eskura.

ARGIA JENDEARENTZAT MUSUTRUK: ARGIAko komunitatearen arteko harremanak indartzeko, besteei zerbait emateko aukera dugu. Ostegunero 10:00etan izaten da txupinazoa: ARGIA Jendeak musutruk hartu ditzakegun gaiak publiko egiten diren unea.

www.argia.eus/azoka · @argiaAzoka

Era guztietako **salgaiak** aukeran: ikus-entzunezkoak, mahai-jolasak, argitalpenak, laminak eta mapak, gorputzarentzakoak, bitxiak, eskulangintza, jantziak...

87 salgai

Lepo-oihalak

Kakorratzez eginiko artilezko lepoko edo tokilla beroa, nahi bezala jantzi eta gozatzeko. Eskaripean egiten dira, beraz zure gustuko kolore eta neurriak izan ditzake.

Bidai gastuak aparte ordaintzen dira. Iurretan sortuak direnez gero, ingurukoei eskura ere ematen zaie.

25 euro

34 gai musutruk

Urriaren 25ean, 10:00etan...
ARGIA Jendearentzat musutruk jarriko ditugu **argia.eus/azoka** webgunean.
Ez da zozketa, azkarren ibiltzen denak eramango ditu!

Bizi Baratzea lamina 29 eta 30

Mattinek eta Antton Olariagak eginiko lamina originalak. Neurriak: 35 x 50 zm.

MP3 irakurgailua

Lekeition inor ez da ilegala

Itsaso Zubiria Etxeberria
@itsasozubiria

Sekula sentitu al duzu, irakurle, zuk egin, bultzatu, saldu, zabaltzen lagundu duzun kamiseta bat kalean norbaiti jantzita ikustearen poza? Zeure barrurako "begira, horrek gure kamiseta darama!" euforiko bat esatea ez al zaizu tokatu? Horrela ibili naiz pasa den asteburuan Lekeition. Batera eta bestera begiratuta, bazter denetan ikusi dut ARGIAk eta Mbolo Moye Doole elkarteak elkarlanean prestatutako "inor ez da ilegala" kamiseta. Banekien kanpaina arrakastatsua izaten ari zela, ikusi diot soinean ezagun bezala ezezagunen bati... Baina zer gertatu da Lekeition horrenbeste jendek proiektu honekin bat egiteko?

Erantzuna eman dit Amaia Nicholson herritar eta ARGIA Jendeak bi hitzetan: Kasumay eta Jori. Senegaldar komunitate esanguratsua dago Bizkaiko kostako herri arrantzale honetan, eta harreman estua egin dute azken urteetan euskal komunitatearekin. Baina kazetariak kontutan hartzen ez zuen ñabardura batekin: guk, zuri jator eta integratzaileok, usu beltz guztiak zaku berean sartzearen akatsa egin ohi dugu, eta azpimarratu digute senegaldar komunitate anitz horren barruan Diola etniakoak direla Lekeition dauden asko, Casamance eskualdekoak. Diolak dira *Kasumay* izeneko ("zer moduz?" dioleraz) fruta-denda ireki zutenak orain urte batzuk herrian, eta beronen arrakasta ikusita, ondoren *Jori* izeneko ("on egin" dioleraz) jatetxea zabaldu zutenak menu senegaldar eta bertakoak konbinatuz.

Oso sartuta daude herrian, eta Nicholsoni, kamiseten kanpaina ezagutu zuenean, ideia polita iruditu zitzaion herrian jendeari "inor ez da ilegala" proiektuarekin bat egiteko aukera eskaintzea. Eta zer hoberik diolek eurek saltzerik baino? Jori jatetxean jarri ziren salgai kamisetak uztailan, eta astebetean 40 inguru saldu ziren. Orduz geroztik beste 30 bat gehiago saltzera iritsi dira, eta denera proiekturako 1.000 euro inguru bildu dituzte.

Ikusiko ez nituen ba nik kamisetak kalean? Gutxienez 70 badabiltza Lekeition bueltaka! Indar handiz sartu da kanpaina herrian, eta badirudi hemendik aurrera ondarrutarrek ere lasai pasa ahal izango dutela muga. ■

ARGIAkoa egiteko arrazoia:

"*Kazetaritza alternatiboa eta herriari lotua egiten duzuelako euskaraz*"

Aitor Olaizola Urien (Donostia)

"*Gaurkotasuna, politika eta orokorrean interes handiko gaiak euskaraz jorratzen direla. Kalitate handia duela*"

Koldo Latierroh Aldanondo (Donostia)

Proposatu ARGIA Sarietarako hautagaiak

Bidali oirureta@argia.eus helbidera alor hauetarako hautagaiak: ikus-entzunezkoak, irratia, internet, prentsa, komunikazio ekintza eta merezimenduzkoa. ARGIAko lantaldean osatzen dugu epaimahaia, eta zuek bidalitako hautagaiak zuzenean zerrendara sartzen ditugu.

Sad Nigiri
(aurretik Sad Mirri gisa ezaguna)

"TRAP-A SHOWRAKO AITZAKI HUTSA DA"

Mirri triste dagoela esanez agertu zen plazan, ileorde gorri bat buruan. Bat-batean, entzulea erotzeko asmoa zeukan meditazio disko bat argitaratu zuen. Orain, ezustean, Mirri hil du, eta sushi izenez birbataiatu du bere burua. Ikusitakoak ikusita, biharko ze asmo duen galdetu diogu, baina futbolariaren erantzun anbiguoa eman digu: burua hurrengo partiduan daukala.

Kepa Matxain
@kmatxain
ARGAZKIA: DANI BLANCO

Triste jarraitzen duzu?
Goizeko 09:59tan soilik. Bestela ongi nago, salbu eta une garratz batzuetan. Postrerako jogurtik gelditzen ez denean, adibidez.

Zure Instagrameko argazkietan kopetilun ikusten zaitudalako esan dizut.
Jakina, nik ere izaten ditut txakalaldiak, edozein pertsonak, animaliak edo robotek bezala. Halere, arretaz begiratuz gero, ohartuko zara argazki tristeak baino gehiago direla alaiak. Mirri, aldiz, ez. Hura tristurara bideratua dago.

Nola *hura*? Ez al zara zeu Sad Mirri ba?
Jada ez. Hemendik aurrera Sad Nigiri nauzu, baratxuriak tomatearekin ondo ezkontzen baitira.

Noiztik hori?
Ez dezagun tipula ere ahaztu. Ai, tipularen negarra...

Jakitearren soilik: zergatik dago Mirri tristurara bideratuta?
Bizitza gogorregia izan da berarekin –eta ez naiz ari droga edo familia arazoez, horretaz ez dakit ezer–. Dakidana da askotan merezi gabe sufritu izan duela. TMT –Txirri, Mirri eta Txiribiton– hirukotearen etsai gehienei modu eraginkorrenean aurre egin dien pailazoa dela uste dut, eta, hala ere, tratu bidegabeak jasan behar izan ditu. Etsai maltzurrenek bera egurtzen zuten gehien, Xagu xarroskik eta Patxistein Doktoreak, batez ere. Bera beti saiatu izan da jendea alaitzen eta ondo pasarazten, eta urteak igaro ahala horrek ondorioak ekartzen ditu: psikoterapia, marihuana sendagarria, padelean jokatzea, eta beste.

Halakorik. TMT hirukotearen azterketa psikoanalitikoa egina daukazu?
Bai, umetatik jarraitu ditut. TMTren VHSak ikusi ahala beren jokaerak aztertzen nituen, sei edo zazpi zatitan banatutako udarea jaten nuen bitartean. Pailazoz mozorrotzen nintzen, eta aitak grabatzen ninduen. Gero, hamalau bat urterekin, Txirri Manson izeneko musika talde bat osatu genuen lagun batzuen artean –zarata egiten genuen–.

Adinagatik –24 urte– ez al zitzaizkizun tokatzen gehiago Takolo, Pirritx eta Porrotx (TPP)?

Jarraitzen nituen, baina gehiago konektatzen nuen TMTrekin. Bazeukaten zerbait, ukitu bitxi bat, gustuko nuena. Gogoratzen naiz nola behin, hamar bat urte nituela, aitarekin kalean nindoala, hark esan zidan: "Begira, hori Txirri da". Makillaje gabe zihoan. Zirrara sentitu nuen.

Pentsatzen dut izango duzula iritzi bat Txirri, Mirri eta Txiribiton Juniorri buruz.

Behin ikusi nituen zuzenean. Ez dago ezer esan beharrik. Herriko festetan jotzen duen tributu-talde bat ikustea bezalakoa da, negar malkoak eta nostalgia gehituta. Agian Sad Junior jarri behar nioke izena proiektuari *lel*.

Bat-bateko izen aldaketa gehiago ez, mesedez.

Ez, lasai, gaur ez dut gosaldu. Dena dela, udarearen irudiarekin jarraitzearren, argitu nahi nuke TMT hirukoa ez dela proiektu honek duen tematikaren %100a. Lehen aipatutako udarea adibidetzat jarriz: sei zati horietako bat –handiena, ziur asko– TMT da, baina beste zatiek ez dute horrekin zerikusirik: zati bat izan daiteke pizza bat, beste bat Jim Carrey, kolore morea, edo kalean ikusi dudan zakur baten isatsa... gehienetan bizitako uneetan oinarritzen naiz. Post-umorea edota pre-drama deitzen diot nik. Inolako mezurik ez bidaltzea da nire proposamena –*no message lol*–. Ideia konkreturik gabe, irudimena paseatzera ateratzean datza kontua, gero sormenarekin elkartu eta txokolatezko donut bat jaten duten arte. Nola ez, jendea "WTF?" moduan gelditzen da. Ustelkeriaz, bortxaketez, arrazismoaz edo gerrateez ere eman nezake iritzia, baina ez dut uste hori Sad Nigiri proiektuaren parte denik.

Ez duzu denbora askorik behar kantak egiteko. Berehala kaleratu zenuen Port Aventura lehen diskoa.

Youtubeko kontu bat neukan eta maiz igotzen nituen bideoak. Horietako batean, asmo handirik gabe, *Kurt Kobainilla* kanta igo nuen, Mirriren ileorde bat jantzita, hura triste dagoela kantatuz. Biharamunean Gaztea irratian bota zuten, eta agian bideo bat baino gehiago izan zitekeela pentsatu nuen, aspaldi

bainenbilen bakarka zerbait egiteko gogoz. Nire lagun Kearekin hitz egin eta bere estudioan grabatzen hasi ginen. Hilabete baino gutxiagoan atera zen *Port Aventura*, hamar kantarekin. Ez zitzaidan kontzerturik atera. Handik hilabetera *Meditation whatsapp* grabatu nuen, etxean aspertuta nengoela.

Meditazio disko bat, horrela, bat-batean.

Aspertzea oso garrantzitsua da. Meditaziora zaletu nintzen garaitsu hartan. Entsegu lokalaren ondoan yogako ikastaroak ematen zituztenez, klase orduetan ezin izaten genuen entseatu. Hortaz, yogan izena eman nuen eta meditazioaren munduan kuxkuxeatzen hasi nintzen. Meditatzeak antsietatea baretzeko eta lasaiago bizitzeko balio dit. Garai hartan, gidatutako meditazioak entzuten nituen etxean –orain nahiago dut ezer gabe jardun– eta honakoa otu zitzaidan: zergatik ez sortu meditazio gidatu bat, baina entzulea erotzeko asmoarekin? Eta horri ekin nion. Ohiko meditazio diskoa dirudi hasieran, baina bat-batean garrasiak hasten dira, beldurrezko sampleak... oso harrera hotza izan zuen. Lagun batek aipatu zidan tortura metodo ona izan zitekeela. Beste batek, aldiz, kontrakoa: 39ko sukarra kolpetik jaitsi zitzaiola diskoa entzun ostean.

Eta hirugarren diskoaren izenak –*White Bernie*– zeri egiten dio erreferentzia?

Orain arteko diskorik landuena da, eta jendeari gehien gustatu zaiona. *Loop*-ak eta *free use* sampleak erabili nituen, trap eta lo-fi kutsuko lana osatzeko. Izenburuak Deftonesen *White Pony*-ri egiten dio keinu. Bernie nire untxia da, hiltzeko zorian egon zen. Merezi zuen disko on bat. Zorionez, ondo atera zen dena. Gero, lehen kontzertua jo nuen Urnietako Saroben. Hirugarren diskoa kaleratu ostean. *Trap life*.

Zu ere traparen zakura, beraz.

Eztanda bat ari da gertatzen, harri azpitik agertzen dira musikari berriak. Eszena urbano hori gero eta zabalgoa da inguruotan. Ezagunenak Gorpuzkingz izango dira –Euskal Traparen Aitzindariak– baina badira gehiago: Arrano Pertxa, Kea, Weird Joa...

Gorpuzkingz-ekoekin, gainera, egin zenuen kolaborazio bat.

Oso modu naturalean sortu zen. Karibear Uharteetan topatu ginen, eta 845 zigarro –elektroniko– erre ostean, Zakil O'Neal eta bioi elkarrekin abesti bat egitea bururatu zitzaigun. Izugarria izan zen 845 zigarro batera erretzea.

> » "Post-umorea edota pre-drama deitzen diot nik: inolako mezurik ez bidaltzea da nire proposamena"

> » "Hainbeste buelta eman zaizkionez, rapetik aldentzen den edozer da trap-a hemen. Eta askok ez dute ezertarako balio musikari bezala"

> » "Hainbeste musikari dagoen honetan, irudiak hartu du inoiz baino garrantzi handiagoa"

Kea-rekin ere aritu zara kantu batean baino gehiagotan.

Kea eta biok betidanik izan gara lagun onak. Beraz, istorio hau ez da Gorpuzkingz-ekoena bezain harrigarria. Ukrainan dagoen amodiozko tunelean ura edaten ari ginela, nire lehen diskoa grabatzen lagunduko ote zidan galdetu nion. Baietz, hark, eta ate magikoaren bitartez bere etxera joanda, *Port Aventura* grabatzeari ekin genion. Disko horretako abesti bat berak ekoiztua da, eta oso zoriontsuak izan ginen hura grabatzen. Kearekin musika kontuetan aritzea beti da aberasgarria eta dibertigarria.

Nola ulertzen duzu trapa?

Zaila da definitzen, egun edozeri deitzen baitzaio trap. Nik, adibidez, Kinder Malo, Pimp Flaco eta horiekin entzun nuen aurrenekoz hitz hori. Arreta piztu zidaten, eta pixkanaka Yung Leanen tankerako apustu *saddie*-agoetara igaro nintzen. Gainera, betidanik gustatu zaizkit letra surrealistak, nahiz eta hori ez dagoen derrigorrez traparekin lotuta, jatorriz ghettoetako musika baita. Halere, hainbeste buelta eman zaizkionez, rapetik aldentzen den edozer da trap-a hemen. Ausartzen naiz esatera askok ez dutela ezertarako balio musikari bezala. Hainbeste musikari dagoen honetan, irudiak hartu du inoiz baino garrantzia handiagoa. Cecilio G, adibidez. Bere musika gustatzen zaidan arren, askok bere kopetako gurutzeagatik ezagutzen du soilik. Edo C. Tanganaren irudi harroxko hori, edo Yung Beef bera... dena da irudia. Showrako aitzakia hutsa da trap-a. Egun, musikaz deus jakin gabe egin dezakezu musika. Loop bat deskargatu, bateria bat gehitu eta kantak egin daitezke bost minutuan. Horri irudi indartsu bat gehitzen badiozu, aurrera egiten du.

Ze asmo aurrerantzean?

Aurrera begiratzea ez zait gehiegi gustatzen. Oraingoz, egunotan jo behar ditudan hiru kontzertuetan pentsatzen ari naiz.

Burua hurrengo partiduan daukazu.

Hori da. Entrenatu gabe, baina hurrengo partiduan. Grinchiek eta biok ondo pasatu nahi dugu. Gainontzean, sortzen jarraituko dut Sad Mirrirekin, Sad Nigirirekin edo Happy Porrotxekin.

Grinchie? Nor da hori?

Nire ordenagailua. Segurtasun falta disimulatzeko aitzakia bat, agian. Betidanik jendez inguratuta jo dut taldeetan, baina orain bera da nire ezagun bakarra. Musika ere bere bidez egiten dut, FL Studio eta Cubase bidez. FL Studio demo moduan daukat, gainera, eta horrek gauzak zailtzen ditu, ordenagailua derrigor piztuta eduki behar izaten baitut. Abesti bat bukatutzat eman eta ordenagailua itzaltzen badut, edota programa ixten badut, ezin izaten dut hura errekuperatu biharamunean aldaketaren bat otutzen bazait. Grinchie deitzen diot, lehen diskoaren azalean Grinch agertzen delako, eta une batean nire kideak seinale arraro bat bidali zidanez, pentsatu nuelako Grinch izan nahi zuela. Grinch bezain altua ez denez, Grinchie deitu nion. Jim Carrey gure idoloa da gainera.

Azken mezurik?

Gazteei, batez ere: jan purea, ona da eta. ■

Begoña Zubero

Munduaren argazki bat

Xabier Gantzarain
@gantzarain

CAS & GAS (2007)

Argazki seriea. Neurri aldakorrak

Bilboko Vanguardia galerian dauka orain erakusketa, *Po bailarako jendea*, Po ibaiaren hegietan ateratako argazki seriea, Michelangelo Antonioni zinegileari egindako keinua, 1943an grabatu zuen dokumentalaren uberan, leku baten arima harrapatzeko saiakera. Bere webgunean dauzka lanik gehienak ikusgai.

Argazki dokumentalista estatubatuarraren eskolakotzat dauka bere burua artistak, logikoa ere bada, New Yorken osatu baitzituen Madrilen hasitako ikasketak. Walker Evans aipatu izan dute bere lanari buruz hitz egiteko, baina ez da beharrezkoa.

Nortasun handiko estilo berezia du Begoña Zubero Apodakak (Bilbo, 1962ko irailaren 17a). Lekuak harrapatzen ditu argazkietan, gehienetan ez da jenderik ageri, paisaia bera mintzo da hango jendeez.

Batzuetan beharrezkoa izaten da gauza ebidenteak gogora ekartzea: "Argazkiak buruarekin egiten dira, ez hatzarekin", esan zuen artistak elkarrizketa batean, "eta argazkiaren unea bera bezain inportanteak dira aurretiko lana zein ostekoa". Buruan ideia batekin abiatzen da artista leku batera, baina, berak esatera, ideia hori zeharo aldatu daiteke behin lekuan bertan zaudela, hura barneratzen duzunean, bere xehetasun eta ñabardurak ezagutzen dituzunean. Argazki bat egitera joan eta beste batzuekin itzultzen zara etxera akaso.

Lan ugari egindako artista da Begoña Zubero. Bere serierik ezagunena beharbada *Existenz* izango da, XX. mendeko erregimen totalitarioen arkitektura aztertzeko saiakera, Erroman, Moskun, Berlinen, Varsovian eta Erevanen egindako argazkiak biltzen dituena, tartean Berlineko Tempelfoh aireportuarenak.

Armeniako egonaldian begia eta kamera beste leku batzuetara ere joan zitzaion ordea, eta han osatu zuen *Cas & Gas* serie hau, kasinoak eta gasolindegiak biltzen dituena, Armenia berriaren erakusgarri. ■

KULTURKRITIKA

» LIBURUA

Ez dut maite baina bai

Xabier Etxaniz Erle

Algar argitaletxe valentziarrak zortzi album argitaratu ditu euskaraz azken urte hauetan, eta horietako erdiak Rocio Bonillak eginak. Liburu bitxiak dira, eta egitura aldetik hauxe dugu horren froga argiena. *Neba-arrebak!* alde bietatik irakur daitekeen obra dugu, ez du atzeko edo aurreko alderik, irakurleak bi azal aurkitzen ditu liburu honetan (ohiko azal eta kontrazalaren ordez). Eta bi azal dituenez bi istorio irakur daitezke, bi narratzaile, baina egitura bera errepikatuta. "Ez dut arreba maite" esaldiarekin ekiten dio bere kontakizunari mutilak; "ez dut anaia maite" esaldiarekin, aldiz, neskak. Eta bai batak bai besteak neba-arrebaren alde txarrak aipatzen ditu, zergatik ez duen maite (txikia sentiarazten duelako, zapaltzailea delako; dena txikitzen duelako, negarrontzia delako…). Baina, askotan gertatzen den bezala, uste baino maiteago dugu pertsona hurbil hori. Kontakizuna hitzen eta irudien bidez egiten du Bonillak; hitz gutxi eta irudi esanguratsuen bidez mezu argia adieraziz irakurketa errazten digu.

Mila arrazoi egon daitezke neba-arreba bat gorrotatzeko, eta horietako batzuk aurki ditzakegu obra honetan. Mila arrazoi neba-arreba maitatzeko.

Rocio Bonillaren liburua benetan da atsegina, gustura irakur-ikusten dena eta haur txikiekin une atsegina igarotzeko aproposa (altzoan dituzula… edo talde txikitan eskolan); izan ere haurrei egunero gerta dakizkiekeen istorioak dira eta, amaieran, ukitu umoretsua irakurlea irribarrez uzteko.

Neba-arrebak!

ROCIO BONILLA

Ilustrazioak: Rocio Bonilla. · Itzulpena: Gerardo Markuleta.
Algar, 2018. · 52 orrialde · haurrentzat.

Rocio Bonilla idazle eta ilustratzaile katalana (Bartzelona, 1970).

Umorea, baina, ez da amaierako kontua soilik, batez ere amaieran ageri arren, kontakizunean zehar neba-arreba bakoitzak bestea animalia baten bidez irudikatzen baitu eta honek horrela jokatzen duela kontatu. Narrazioaren erritmoan, gainera, irudietan protagonista hainbat aldiz agertzeak bizitasun handia ematen dio kontakizunari eta horrek, hainbatetan, areagotzen du umore kutsua.

Liburu ederra da Gerardo Markuletak euskaratu duen obra hau, bitxia, entretenigarria, umoretsua eta hunkigarria. Merezi du haurra altzoan hartuta eta ohean dagoela liburua hartu eta berarekin gozatzeak; merezi du taldetxoari irudiak erakutsiz kontatzeak. Eta, zergatik ez, agian zuk ere une atsegina igaroko duzu Rocio Bonillak egiten digun proposamenarekin. ■

» DISKOA

RIPen esentzia: umiltasuna eta gordintasuna

Iker Barandiaran
@ikerBarandiara

Arrasateko RIP taldeak ezin hobeto gorpuztu zuen 80ko hamarkadako Euskal Herriko punka. Taldeak idatzitako hitzek garai soziopolitiko hura modu gordinenean deskribatu zuten eta musika ere gogorra eta zuzena zen. Hori zen hain justu garai hartako gazte askok bizi eta sentitzen zutena. Diskografia laburra du laukoteak, baina erabat irmoa eta sinesgarria. Horregatik, askoren gogoan dago eta bere emaitzak bizirik dirau belaunaldiz belaunaldi.

Taldekideen izaeragatik, baina, berandu kaleratu zituzten diskoak eta, aukera izan arren, ez zuten inoiz taldea ezagutzera emateko inongo pausorik eman. Beraien izaera umil, kaletar eta punkyari eutsi zioten beti. Seguruenik, horregatik, ez zen orain arte, Eskorbuto eta Cicatriz taldeek ez bezala, taldearen historiari buruzko idatzizko lanik existitzen. Bakarrik orain dela hamahiru bat urte taldeari gorazarre egiteko *Goiena*k eta Gaztelupeko Hotsak-ek argitaratutako *RIP, Punkaren 25 urteko historia bizia* DVD-CD dokumentala.

Oraingoan, bada, *Silencio Toxico* fanzinea egiten duten Lleidako Judit Uriach eta Nando Alonsok *Larga vida a RIP* fanzine-liburu osatua egin dute RIP taldeko Txerraren eta Arrasateko beste hainbat pertsonaren laguntzarekin. 376 orrialde ditu eta oso landua dago. Arrasateko, Euskal Herriko, Kataluniako eta Aragoiko dozenaka pertsona elkarrizketatu dituzte eta, horien lekukotasunek lagunduta, arrasatearren ibilbide osoa errepasatu dute.

RIP punk talde arrasatearra .

Larga vida a RIP

RIP

Liburua + CD-Bilduma.
Tóxico Records,
El Lokal, 2018

Euskal Herritik kanpo ere harrera itzela izaten ari den lan horretan RIPen sorreraren testuingurua ulertarazten saiatu dira, eta taldearen ibileraz eta taldekideen izaeraz jabetzeko erreferentziazko lana da.

Liburu-fanzine kontzeptua ulertzeko azaldu beharra dago egileek uneoro oso presente izan dutela RIPen izaera eta esentzia; hala, argitalpenaren sorkuntza kolektiboa izan da, maketazioa fanzine kutsukoa eta salmenta eta banaketa modua ere alternatiboak.

Liburuak, gainera, CD-bilduma bat dakar opari. Hala, *Silencio Toxico* fanzinetik hurbil dauden Kataluniako eta Madrilgo hainbat talde eta Euskal Herrikoak –Arrasatekoak nagusiki– gonbidatu dituzte RIPen kantak interpretatzera, 27 guztira. Are gehiago, horien artean nabarmentzekoa da RIPek inoiz argitaratu ez zituzten bi kanta (*El violador* eta *El pastor*) ere berreskuratu izana. ■

Zentzumenen bidaia Isturitzetik Etiopiara

***ISTURITZETIK ETIOPIAN BARRENA* ERREZITALDIA**

Noiz: Irailaren 21ean.
Non: Bilboko Bira gunean.

Dabi Piedra
ARGAZKIA: UNAI ARNAZ IMAZ

Letra hutsetik arte bisualera eraman zuen Joxan Artzek poesia, irakurtzeko ez ezik, ikusteko, hautemateko moduko olerkiak idatzi zituen. Ideia horretan sakondu du sortzaile gazteen talde batek, Artzeren neurri-neurriko omenaldia den *Isturitzetik Etiopian barrena* ikuskizun-errezitaldian. Bilboko Erronda kaleko Bira gunera heldu ziren irailaren 21ean Beñat Goitia eta Adrian Puck DJ, Hamburgo Platz zikloak gonbidatuta, ikus-entzuleen zentzumenak eta barrenak kitzikatzeko asmoz. "Diziplina anitzeko kontzertu literario teatralizatua" agindu zuten antolatzaileek.

Joxan Artzeren poesian zeharreko bidaia Bernardo Atxagaren *Etiopia*-tik pasatuz egin zuten, izenburuak ondo adierazten duen legez. Atmosfera geldo eta iradokitzailean, aretoaren ilunpean, Artzeren eta Atxagaren olerkiak entzuteko aukera izan genuen, baita Beñat Goitiak idatzitako batzuk ere. Zuzenean errezitatuak batzuk, grabazioak besteak, gitarraren eta Adrian Puck DJ-ren soinu efektuek lagunduta beti.

Atzean pantaila, irudiak proiektatzeko. Arantzazuko hamalau apostoluak, elurretan noraezean dabilen gizona, isilik eta geldi geratzen den piano-jolea... ikusi genituen, olerkien osagarri. Edo, batzuetan, poesia zen irudien osagarri? Emanaldiko alderdi bisualaren atzean Aitor Zarzuelo dago, baina Bira guneko oholtzan Beñat Goitia eta Adrian Puck DJ baino ez ziren azaldu.

Artzek lerro eta hitzen formekin jolastea atsegin zuen, irakurleak begiekin ere entzun zezan poesia. *Isturitzetik Etiopian barrena*n paperetik lau haizetara jauzi egin zuten Artzeren olerki iradokitzaileek. Esate baterako, lanari eskainitakoan, oihartzunek, errepikapenek, kakofoniek, kontsonanteen kolpeek eraman gintuzten langilearen zeregin mekanikoa bere gordinean bizitzera.

Zentzumenen eta sentsazioen saltsa horretan, Isturitzetik Etiopiarako bidaia zirraragarria egin genuen, euskal kulturaren sinboloetan eta gizakiaren barren-barreneko kezketan geldialdiak eginaz. Horren guztiaren gidari, irudia, soinua, ahotsa. Eta isiltasuna. Aretoaren epelean hotz sentitzeraino. Ezinegona. Baina ezinegon gustagarria, sormenaren zirrikituetatik bidaia ederra egin genuen eta. ■

Egilea: Ana Zambrano

Puzzlea

Koka ezazu pieza bakoitza dagokion tokian eta Daniel Olzomendik, Euskal Elkargoko kontseilariak, esandako esaldi bat irakurriko duzu.





Sudokuak

Bete itzazu gelaxkak 1etik 9rako zenbakiak idatziz, zutabe, lerro eta 3x3 koadro bakoitzean errepikatu gabe.

Erraza

8		7		3		5	9	
		3	5					1
		2				6		4
				8	3			5
	7		1	4	5		6	
5			2	7				
9		5				8		
7					8	1		
	1	8		2		3		9

Zaila

							9	
			5	8	2		4	
			7			3		6
			2			7		3
6	3		9		7		5	4
4		5			3			
2		3			9			
	9		1	2	8			
	8							

Azkenak

Koka ezazu erantzun bakoitza bere tokian. Koloreztatutako laukietan egokitutako hizkiak batuz bi zuhaitz izen lortuko dituzu.

A

Ohoragarri

Erromako zubi

Lehenik

Buru nahaste igarokor, zoraldi

Erroa

B

Esate baterako

Bidetik atera, baztertu

... Tremens, musika taldea

Hemen bertan

Garratza

Ebazpenak

Puzzlea:

"Abertzaleak borrokatu gara turismoaren aurka, ez ordea, ez genuelakoz jendea etortzerik nahi, hain juxtu ere, ez genuelako folklorizatuak izan nahi."

Azkenak:

A: Ohoretsu, Ortzadar, Aurrenik, Zoroaldi, Sustraia. (URKIA)

B: Adibidez, Saihestu, Delirium, Hementxe, Mingotsa. (ZUMEA)

Zaila

8	4	7	6	3	1	5	9	2
3	6	9	5	8	2	1	4	7
5	2	1	7	9	4	3	8	6
9	1	8	2	4	5	7	6	3
4	7	5	8	6	3	9	2	1
6	3	2	9	1	7	8	5	4
7	9	6	1	2	8	4	3	5
2	5	3	4	7	9	6	1	8
1	8	4	3	5	6	2	7	9

Erraza

6	1	8	7	2	4	3	5	9
2	4	1	6	8	3	9	7	5
1	5	2	8	9	7	6	3	4
4	9	3	5	6	2	7	8	1
8	6	7	4	3	1	5	9	2
3	7	9	1	4	5	2	6	8
5	8	6	2	7	9	4	1	3
9	2	5	3	1	6	8	4	7
7	3	4	9	5	8	1	2	6

Luis Angel Gaintza. Dokumentu biltzailea



Jubilatuta dago Luis Angel Gaintza (Bilbo, 1942), baina inola ere ez geldi. Bilboko kaleetan txistulari, plazako dantza saioetan dantzari eta Bilbo Kantari zuzentzen ikusiko dugu, baina batez ere alderdi, sindikatu eta kultura elkarte gehienetan ezagutzen dute, hainbat agiritegirentzat aldizkari, kartel, panfleto eta bestelako denetariko dokumentazioa biltzen ibili baita azken 40 urteotan, musu-truk.

“Euskal Herrian sortu diren dokumentuen %2 inguru jaso dugu soilik”

Jabi Zabala
@sarean
ARGAZKIAK: IÑIGO AZKONA

Trajedun susmagarria

“Saltzaile lanagatik enpresetara elegante jantzita ibili behar izaten nintzen, gorbata eta guzti, eta lanak amaituta, adibidez, tokian tokiko *herriko tabernara* sartzen nintzen. Haiek susmo aurpegiak! 40 urteotan denetariko jendea ezagutu dut: ezkerrekoak, eskumakoak, anarkistak…Ni denengana joaten nintzen, inoiz Fuerza Nuevak Buenos Aires kalean zeukan egoitzara ere bai. Ez diot inoiz inoren koloreari erreparatu, eta denek denetarik eman didate. Sakelakorik ez zegoen orduan, eta koadernotxo batean apuntatzen nituen helbideak eta kontaktuak”.

Nola hasi zinen agiriak biltzen?

Euskarazko idazlan lehiaketa antolatu genuen 1977an Deustuko ikastolakook, *Euskera, gauzarik nagusiena* lelopean, eta 3.800 idazlan jaso genituen Euskal Herri osoko ikastoletatik. Bilboko Astoria zinean egundoko jaia antolatu genuen eta idazlan guztiak Euskaltzaindiara bidali genituen, bertan gorde zitzaten. Hainbat hedabidetan egin genuen bira eta *Deia* jaio berrian Amatiñok elkarrizketatu gintuen; artean *Egin* sortu gabe zegoen. Berak aipatu zidan bazela Lazkaon monje beneditar bat, Juan Jose Agirre, klandestinitate garaiko gauzak jasotzen hasi berri zena. Nobizio aldia Montserraten egina zuen Agirrek, han ikusi zituen katalanak horrelakoak jasotzen eta gordetzen eta gauza bera hemen egitea pentsatu zuen. EGIn ibilia nintzen eta *Gudari* aldizkariaren ale batzuk gordeak nituen, panfletoak, ikurrinak, Sabino Aranaren irudia zuten plantxak... Postaz hasi nintzaion materiala bidaltzen eta halako batean bisita egitea deliberatu nuen, aurretik telefonoz abisatuta.

Hasieran Agirre ez omen zen zutaz fio.

Ordurako ETAren inguruko hainbat agiri jasoak zituenez, *txakurra* ote nintzen susmoa hartuta egon zela kontatzen du berak, eta lehen bisita hartan, badaezpada, zenbait gauza ezkutatu zituela, organoaren barruan-eta. Ondoren emaztearekin joaten hasi nintzen eta hura uste ona hartzen hasi zen apurka-apurka. Agirrek egiten zuenak guztiz liluratu ninduen, pegatinetatik hasi eta zapaldutako panfleto zikinetaraino sailkatu eta artxibatzen zituelako.

Orduan harentzako agiri biltzailea bilakatu zinen.

Saltzaile lana egiten nuen enpresan, Euskal Herri osoko fabrikak bisitatzen. Lanerako egin behar nituen bidaiak baliatzen nituen herriz herri gauzak jasotzeko, baina jubilatzeko unea heltzean hura bukatu zen. Orduan, 2004an, bilketa lanari jarraipena eman ahal izateko, Lazkaoko agiritegia, Labayru Fundazioa eta Antso Jakituna Fundazioa bildu eta Euskodok elkartea sortzea adostu genuen. Alde batetik lan horri seriotasuna emateaz gain,

Luis Angel Gaintza San Inazio auzoko bere lonjan: "Planoak gordetzeko altzarien beharra dugu".

lehen, enpresaren kostuz ordaintzen ziren bidaiak eta gastuak ordaindu eta diru laguntzak jaso ahal izateko

Hiruentzat egiten duzu bilketa lana?

Bai, eta gehiagorentzat ere bai. Hasieran Lazkaorako hasi banintzen ere, gero Labayru ezagutu nuen eta haiek ere eurentzat jasotzea eskatu zidaten, gero Euskaltzaindiako Arana Martijak, gero Antso Jakituna Fundazioko Carmen Gómezek, Nevadako Jon Bilbaok... Lonjan 16 kutxa izatera heldu naiz, beste hainbeste jasotzailerentzat bildu izan baitut.

Lan hori ez luke berez administrazioak egin beharko?

Bai, baina lan honetan ez dago argazkirako jartzerik, ez dago mozteko xingolarik. Lan zikina ez balitz, segurutik administrazioan departamendua egongo litzateke kultura arloan herrietan sortzen dena jarraitzen.

Irizpideren bat baduzu dokumentuak jasotzeko?

Kultura edo politikari buruzkoak dira, baina hortik aurrera ez dut bereizketarik egiten, guretzat denak balio du. Denetariko tokietan izan naiz beso zabalik hartu naute. Jaurlaritzarentzat aritu izan banintz agian uzkurrago jokatuko zuten, baina Lazkaoko monjearentzat zela eta denek eman izan didate. Batzuetan, baten batek "hau ezin dizut eman, barneko agiria da eta" esaten zidan, baina azkenerako agiriok lortzen nituen, trukean monjearen otoitzen bat aginduta. GALek Santi Brouard hil baino astebete lehenago harekin izan ginen Agirre eta biok bere kontsultategian, HASIren agiri batzuk Lazkaora eramateko eskatzen.

Estatusik gabeko euskarriak dira askotan.

Guk material iragankorra deritzogu, agertu bezala desagertzen diren dokumentuak, jendeak garrantzirik ematen ez dielako. Labayrun 80.000 kartel inguru daude pilatuta eta itzelezko pegatina bildumak daude. Astelehenero 20 bat jubilatu ibiltzen gara han, dokumentuak sailkatzen. Asko galdu da. Nire kalkuluen arabera Euskal Herrian sortu diren materialen %2 inguru jaso dugu soilik.

Eta zertarako balio dute gero, ikerketak edo egiteko?

Garai bateko eta egungo jai egitarauak alderatuz ikertu dezakezu zer egoten zen lehen eta zer dagoen egun. Kartelak, pegatinak... denak dira garrantzitsuak. Politika tesi asko egin dira Lazkaoko agirietan arakatuta. Euskal Herriko historia garaikideari buruzko ikerketaren bat egin nahi duenak derrigorrezkoa du Lazkaora joatea.

Zer jarraipen izango du bilketa lanak zuek ez zaudetenean?

Instituzioen aldetik serio hartu beharko lukete gaia baina ez gure bidez. Ikusi beharko lukete zer ari garen egiten eta beraiek bilketa egiteko modu bat antolatu, aspalditik ari naiz hori esaten, bestela etorkizun iluna izango du lan honek gu desagertzen garenean. ■

Otegi eta Zapatero Txillarren elkartu dira, jendeari horrelako bilerak inporta zitzaizkionean bezala

Zapaterok bisita itzuli zion Otegiri, aste batzuk lehenago Madrilen Zapateroren museko koadrilarekin bazkaria egin zutelako.

Arnaldo Otegik eta Jose Luis Rodriguez Zapaterok ezkutuko bilera egin zuten irailean Elgoibarko Txillarre baserrian. Bileraren xedea "elkar ezagutzea" zela esan duten arren, ezker abertzaleko iturriek Beranduegiri esplikatu diotenez, bi politikariek beren buruari egindako omenaldia ere izan da. "Arnaldo behintzat, zain zegoen orain modan dauden tributu-talde horietako bat sortuko ote zen, Anoetako proposamena egin zuen garaiko bere espitxak imitatzeko; baina horrelakorik agertu ez denez, bere burua omentzea erabaki du, bere hit onenak grabatu ziren lekura itzuliz". Amnistiaren Aldeko Mugimenduko ordezkariek, bileraren berri izan ostean, adierazi dute nahiago zutela "hasierako Otegi, maketakoa". Egia esan, ezin dugu konfirmatu azken hitza osorik esan duten ala bukaerako sei letrak bakarrik.

SAREAN ARRANTZATUA

Hasco hikasteko hakademiak

Eibarko Txotxialistak

IRUDIA: @IMAGRETO

Legioko ahuntzak idatzi du Casadoren diskurtsoa

Oso gutxitan erabiltzen dutela-eta, Espainiako Legioak erabaki du bere desfileetan parte hartu ohi duen ahuntza, *Cientocincuentaycinco*, birziklatzea. Berak idatzi du Pablo Casadoren azken diskurtsoa (Albert Riverak emandako gomendio eta bestelakoen laguntzarekin). Diskurtso kolonialistaren arrakasta ikusita, *Black is Beltza* filmaren bigarren parterako kontratatu dute Ernesto *Che* Guevararen ahotsa jartzeko. Extremadurakoa du aita *Cientocincuentaycinco*k, eta Jon Maia eta gainerako hezurbeltzek ere fitxatu nahi dute, Madrilen etorkin baten semea izateak dakarren karga sinbolikoaz hausnartzeko.

Casado urriaren 12ko prentsaurrekora bidean

LANDAREAK LANTZEN 2019

LURRA LANTZEKO AGENDA-LIBURUA

HILABETEARI
LOTUTAKO LANAK
BARATZE,
FRUITU BARATZE,
LORE BARATZE
ETA BASOAN

.....

ILARGIAREN
BI ZIKLOAK,
ONGARRIKETA,
LANDARE LAGUNTZAILEAK,
TRATAMENDU NATURALAK,
LUARRA NOLA EGIN...

Jakoba Errekondoren jakintza eta
Antton Olariagaren ilustrazioak.
Aurtengo gaia: lan-tresnak

*Jakoba Errekondok sinatzeko aukera

12 €
Bidalketa gastuak 4 €

Erosi ARGIAren Azokan

azoka.argia.eus | azoka@argia.eus | ✆ 943 371 545

@bizibaratzea

ARGIA
argia.eus

BIZI BARATZEA
bizibaratzea.eus

euskarabildua

AUKERA BERRIAK SAREAN

7. edizioa

Gobernu irekietarako teknologiak: gardentasuna / parte-hartzea / berrikuntza

noiz: urriak 25 osteguna
non: San Telmo Museoa (Donostia)
ordua: 09:00-14:00

IZENA EMAN: www.euskarabildua.eus

Antolatzaileak

metzagaiña

iametza interaktiboa

Babesleak

donostia weekINN

Donostia San Sebastián Alkateordetza Tenencia de Alcaldía

donostiasustapena fomentosansebastián

Donostia San Sebastián Euskara

LABORAL kutxa

Eusko Jaurlaritza Gobierno Vasco

Gipuzkoako Foru Aldundia